


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADU AMAIERAKO LANA

Antzerkia euskarara itzultzea: Venus in Fur

Julen Díez Azkarate

Itzulpengintza eta interpretazioko Gradua

2021/2022 ikasturtea

Tutorea: Bego Montorio Uribarren

Filologia eta Historia saila

LABURPENA

Antzerkia antzeztua izateko sortu den literatur genero bat da. Poetizatzeko, biziagotzeko eta pertsonifikatzeko elkarrizketa idatziak dira. Horregatik, antzerkia itzultzeak giza ahalegin erraldoia eskatzen du, eta ahalegin hori ezin izango da inoiz gainerako arte literarioekin alderatu, ezta itzulpen automatikoak ordezkatu ere; izan ere, sintaxitik eta gramatikatik haratago, sinbologiak, metaforek, musikaltasunak eta hizkuntzaz kanpoko ikurrek osatzen dute antzezlanak, hala nola imintzioek, intonazioek eta pertsonaiek agertoki gainean dituzten jarrerek. Europako beste antzerkiekin parekatuta, euskal antzerkiak mendeak daramatza atzeratuta antzerkirako hizkuntza-teknikei eta edukiei dagokienez. Duela gutxi arte, euskal antzerkia tradizionalismoan eta abertzaletasunean ibilgetuta zegoen, ildo hori hausteko atzaparrak atera gabe eta topikoetatik tira egiten ez duten beste ikuspegi eta gai zinezko eta sakonetan inspiratu gabe.

Ondorioz, egungo antzerki-iraultzaren elur-pilotari bira lagungarriak emateko, GRAL honen helburu nagusia «Venus in Fur» deituriko antzezlan erotiko-sadomasokista itzultzea izan da, euskal kulturaren (literaturan, hedabideetan eta zinematografian, besteak beste) oraindik tabuzat jotzen den gai hori azaleratzeaz eta aukera bat emateaz gain, honako xede zehatzagoak betetzeko: euskarari erronka egitea eta zuzentzea; euskarazko lexiko sexuala eta lengoiaia bortitza aldarrikatzea (irainak eta biraoak); euskal hizkera kolokialaren eta ahozko jardunaren egungo errealitatea islatzea eta obra bakar batean elkarren osagarri izan daitezkeen bi erregistro erabat ezberdinen arteko lokarri bat sortzea. Testuan presente dauden bi erregistro horiek familiarrekoa eta jasoak dira.

Antzerkiaren hainbat geruza ireki eta ikertu, antzezlanaren euskarazko itzulpena osatu eta haren zenbait zailtasun eta ezaugarri aztertu ostean, bi ondorio nagusi atera ditut. Bata, hitzekiko eta hizkuntza egiturekiko gehiegizko fidelitasuna oztopotzat har daitekeela antzerki itzulpenean, antzeztezina izan eta, sorkuntza dela iruditu ordez, bistako itzulpena dela nabaritzen den punturaino gardendu daitekeelako. Bestea, obra bat euskaratzean honako bi joeren oreka aurkitu behar dela: «entzule euskaldunak eroso eta identifikatuak senti daitezkeen espazio bat sortu, maileguez, barbarismoez eta kode-aldaketa txikiez emeki jositako lagunarteko hizkeraren kalko zehatz baten bidez, hizketa praktikoak eta komunikatiboak eraikitzeke asmoarekin» eta «ez utzi inguratzen gaituzten hizkuntza hegemonikoei itzal bat garatzen eta sendotzen euskararen gainean, geure hizkuntza

gutxiuaren erabateko nortasuna eta berezitasuna galdu nahi ezean, poluzio lexikal eta gramatikal arrotzetan hondoratuta».

AURKIBIDEA

1. Sarrera	7
2. Marko teorikoa	9
2.1 <i>Antzerkia: esanahia eta ezaugarriak</i>	9
2.2 <i>Testuinguru historikoa: jatorria eta eboluzioa</i>	10
2.2.1 <i>Euskal Herrian</i>	11
2.2.2 <i>Estatu Batuetan</i>	12
2.3 <i>Antzerkiaren itzulpena: irizpideak eta zailtasunak</i>	13
3. Jatorrizko testua: azterketa	14
4. Itzulpenaren analisia	17
5. Ondorioak	26
6. Erreferentzia bibliografikoak	29
7. Eranskina	33

1. Sarrera

Antzerkia, historian zehar, genero artistiko nabarmenetakoa, zainduenetakoa eta garrantzitsuenetakoa izan da, informazioa transmititzeko, kulturizatzeko eta entzuleekin komunikatzeko izan duen gaitasunari esker. Hastapenetan, antzerkia erritu- eta kultu-helburuetarako erabiltzen zen, eta hortik bere ospea, baina bere egundoko eboluzioaren eraginez, salaketa sozialak egiteko eta munduko kultur-tradizioak, ideologiak eta hizkuntzak eraisteko eta berreraikitze tresna gisa erabili izan da. Espainian, Margarita Piñero (2018) eta José-Luis García Barrientos (2012) idazleen arabera, antzerkia bizi-bizirik dago ikusleen hazkundearen ondorioz; izan ere, alde batetik, ikuspuntu eta genero berriak pizten dituen gai-aniztasun zabala eta etengabe berritzailea, eta, bestetik, nazioarteko obrak eszenatoki nazionaletan irudikatuta ikusteko aukera eskaintzen du, José Romera Castilloren (2020) hitzetan. Euskal Herriko egoerarekin alderatuko bagenu, ordea, ia utopia litzateke bi antzerkiak maila berean jartzea. Nahiz eta egia izan euskal antzerkiaren sorkuntza-ekoizpena altua dela eta gaur egunera egokitzen diren estilo eta hizkera modernoak zein gai eraberritzaileak aldi oro lantzen direla (kontuan izanda duela gutxira arte gerraurreko gai tradizionaletan eta abertzaleetan errotutako gaiak baino taularatzen ez zirela), euskal antzerkiak publikoaren gabezia pairatzen du, tamalez.

Hori dela eta, GRAL honen motibazio nagusia euskal antzerkiaren susperketan datza. Azken boladan ekarpen berritzaileak egin direla azpimarratu badut ere, «askotan», diote Aizpea Goenagak eta Pedro Bareak (2021), «berrikuntzak tradizioetatik edan du, are gehiago, tradizioa berrikuntzaren inspirazioa izan da». Beharrezkoa iruditu zait, hortaz, euskal antzerkiaren iraultzari bultzadaxoka jarraitzeko, beste kulturetan tradizioa nekez laztanduta sortu diren obrak euskaratzea, eta geure hizkuntza zein gizartea euren konfort-zonatik «brastakoan» ateratzea; euskal antzerkiari erronkak ipintzea, alegia. Lan honen beste arrazoietako bat antzerki idatzia areagotzea ere bada: Antzerti aldizkaria desagertu eta harrezkero, Goenagak (2021) ondorioztatuta, euskal antzerkiak beherakada larria izan du artxibaketaren eta dokumentazioaren aldetik, urteotan sortutako muntaien testu gehienak ez baitira argitaratu.

Nire eginkizuna lan honetan Leopold von Sacher-Masoch idazle austriarrak idatzitako eta, pare bat menderen ostean, David Ives antzerkigileak egokitutako eta taularatutako *Venus in Fur* obra sadomasokista oso-osorik itzultzea izan da. Nire motibazioak kontuan hartuta, honako helburu hauek izan ditut abiapuntu:

- a. Itzulpena, printzipioz, antzeztua izateko asmorik gabe egin denez, antzerki idatzia gero eta irisgarriago egon dadin bermatzea.
- b. Antzerkia euskaraz itzultzearen zailtasunak eta oztupoak erakustea.
- c. Antzezlanaren testuinguru historiko eta geografikoari dagokionez, euskal mugetatik eta bizitzatik kanpo girotzen den antzerkia ere izatea eskuragarri euskaraz.
- d. Goiko puntuarekin kontraesankorra eman dezakeen arren, euskara sustatzea, eta, jatorrizko lanaren hizkuntza-erregistro ororen presentziaz, alde batetik kaleko euskal hizkerak bere baitan dituen harribitxiak azalerratzea (dialektoei zeharka so eginez), eta, bestetik, hizkera jasoa antzezagari egitea.
- e. Kaleko hizkerari erreparatuz, Euskal Herrian erdarekin existitzen den elkarbizitza eta, ondorioz, maileguz «kutsatutako» oraingo euskal gizartea nolabait islatzea, baina, aldi berean, euskal irain, birao eta harridura marka peto-petoak «berpiztea» eta familiarreko elkarrizketetan normalizatzen laguntzea.
- f. Sodomasokismoa euskal kulturara hurbiltzea eta harekin lotutako lexikoa ezagutzera ematea, sexuarekin lotutakoaz gain.

Gauzak horrela, lanaren egitura hiru atal nagusitan bereizi dut: marko teorikoa, itzulpenaren analisia eta ondorioak. Marko teorikoa lantzeko, gaiari lotutako bibliografian oinarritu naiz, hala nola antzerkiari eta haren itzulpenari buruzko ikerketetan eta hitzaldietan, antzerkiaren definizioa, ezaugarriak eta historia labur emateko (mundu-mailakoa, euskalduna eta estatubatuarra, David Ivesen antzezlanaren Broadwayn idatzi eta antzeztu baitzen), haren itzulpenaren zailtasunak zerrendatzeko eta jatorrizko obraren azterketa egiteko (bai eleberriarena, bai antzerki-egokitzapenarena). Bigarren atalean, itzulpen-prozesuan nabarmendu diren ondorengo alderdiak aztertu dira: hizkera kolokiala, hizkera jasoa eta bien artean zulatutako «amildegi linguistikoak», interjekzioei, irainei eta sexuarekin nahiz sodomasokismoarekin lotutako hiztegiari dagokienez. Azterketa taula moduan aurkeztu da, non sorburu-testuko (ST) pasarteak bildu diren, xede-testuko (XT) itzulpenekin aldamenean. Taula bakoitzaren azpian, auziari buruzko ebaluazio bat eman da, itzulpen-joerak eta antzezlaneko bi erregistroen artean markatutako aldea arakatzeko. Era berean, lexiko mota bakoitzaren zifra eta ehunekoa ere kalkulatu dira. Ondorioen blokean azken gogoetak aurkituko ditugu, eta bibliografia estekatu eta formalizatutik pasatu ondoren, itzulpen osoa dugu ikusgai bukaeran, eranskin gisa txertatua.

2. Marko teorikoa

2.1 Antzerkia: *esanahia eta ezaugarriak*

Antzerkia edo teatroa arte eszenikoen parte da, antzezpenari lotuta dagoena. Genero literariotzat ere jotzen da, baina narratibak eta poesiak ez bezala, eszenatoki baten gainean eta publiko baten aurrean taularatzen dira obrak; ahozko literatura da, alegia. Federico García Lorcaren (1936) hitzetan: «Antzerkia liburutik altxa eta gizaki bihurtzen den poesia da».

Antzerki-lanei «obra dramatikoak» deitzen zaie, pertsonaien arteko dialogoan edo monologo baten bitartez antzezten direlako. Hala ere, obretan kontatutako istorioak musikaren, mimikaren, eszenografiaren eta beste osagai batzuen bidez ere islatzen dira, hala nola txotxongiloen bidez. Labur esanda, zenbait elementu osatutako ikuskizuna da antzerkia. Nahiz eta bi terminoak sinonimo gisa erabili izan, dio Etecé argitaletxeak (2020), ez da komeni antzerkia dramaturgiarekin nahastea. Lehena genero eszenikoa delako, hau da, antzezpena, eta bigarrena, aldiz, genero literarioa, hau da, antzerki testu idatzia.

Iñigo Errastik (2007) dioenez, antzerki testuetan bi atal nabari dira: didaskaliak eta elkarrizketak. Didaskaliak, alde batetik, antzerkigileak elkarrizketen ondoan idatzitako oharra dira, eta antzezpenari lagungarri izatea dute helburu. Normalean letra etzanaz, parentesi artean, letra larriz edo beste era batera bereizten dira, antzeztu beharreko testutik aldentzeko. Elkarrizketak, beste aldetik, aktoreek dioten testu horiek dira, antzerkiaren muina bera; beren-beregi ahoz esateko idazten dira, baina literatur testuak izaten jarraitzen dute. Alabaina, elkarrizketak artifizialak dira, egileak eratutako fikzio bat, eta haien xede nagusia, Errastik ondo azaltzen duen bezala, ikusleak errealitate asmatu horren naturan barneratzea da:

Kontua da, antzerkian, fikzioa, kontakizuna, elkarrizketen bidez ematen dela, ekintzak pertsonaiek esaten dutenaren bitartez gertatzen direla, eta autoreak aktore-pertsonaien bitartez helarazten diela mezua hartzaileei. Beraz, mezu hori egoki helduko bazaie hartzaileei, aktore-pertsonaien jardunak sinesgarria izan behar du, naturaltasuna izan behar du, erritmo egokia, eta entzuleari ulergarri izan behar zaio. (Iñigo Errasti, 2007)

Laburbilduz, pertsonaia da antzezlanari sinesgarritasuna, kalitatea eta bizitasuna ematen diona. Lola Póvedak argi idatzi zuen bere *Teatro dramático* (2018) lanean:

«Pertsonaia da ekintzari giza forma emango diona. Obra dramatikoa gatazka eta bukaera mugagabeetara irekitzen duen izaki balioaniztuna da». Pertsonaia aktore baten presentziaren bidez edota narratzaile baten imajinazioaren bidez azalduko da antzerkian. Horri makillajea eta arropa ere gehituko zaio, pertsonaiaren gogo-aldarte eta ekintzen tonua zehazteko. Giroa definitzeko, oster, material eszenografikoa eta efektu espezialak, hala nola argiak, musika edota soinu-efektuak erabiltzen dira.

Goian aipatu bezala, ikusleak antzezlanaren parte garrantzitsu bat ere bihurtuko dira, haiei antzeztuko baitzaie eta haiek baitira obraren barnean sartu nahi direnak. Jacques Copeau antzezle frantsesak behin adierazi eta gero Henri Ghéon idazleak (1944) paperez eman zuenaren arabera, «ez da antzerki berririk izango aretoko pertsonak eszenatokiko pertsonak hitzak marmarikatu ezin dituen arte, haren aldi berean eta haren bihotz beretik». Ikusleekin batera, jakina, espazio eszenikoa ere izango dugu, lana gorpuztuko den oholtza. Espazio horrek ez du «eraikuntza» zehatz bat eskatzen, edozein kokapen izan baitaiteke obrarentzat aproposa: antzokia, auditoriuma, zelaia edota plaza, bestek beste.

Antzezlan baten egiturari dagokionez, ekitaldiez osatuta egon daiteke, hots, ekintza, gai, denbora edo inguru baten aldaketa suposa dezakeen kapituluez. Ekitaldiak, halaber, banaketa narratibo txikiagoetan zatitzen dira, «agerraldi» izenez ezaguturikoak. Oro har, gertalekuz aldatzen denean, denbora-garapenean edota pertsonaia nagusi baten agerpen edo desagerpenean markatzen dira.

2.2 Testuinguru historikoa: jatorria eta eboluzioa

Antzerkiaren jatorria ezagutzeko, Miguel Ángel Fernándezen (2010) aburuz, historiaurreko kulturetako erritual erlijioso eta dantza zeremonialetara jo behar dugu: Egiptoko edo Indiako kulturetakoetara, esaterako. Hala ere, gaur egun ezagutzen dugun antzerkia antzinako Grezian landua eta garatua izan zen K. a. VI. mendean (izatez, «teatro» hitza grezierazko θέατρον hitzetik eratorria da, eta «begiesteko tokia» esan nahi du). Hasiera batean, Etecé argitaletxeak (2022) azaltzen duenaren arabera, antzerki lanek jainko greziarrak gurtzea zuten xede, baina geroago Thespis izeneko apaizak koru batek eutsitako dialogo bat txertatu zuen erritual haietan. Ideia politikoak zabaltzeko erabiltzen zen antzerkia, baita entretenitzeko eta hezteko ere, eta haren formarik ohikoenak tragedia eta komedia ziren. Antzerkiaren garrantzia hain handia izan zenez Mediterraneoan,

Etecék adierazita, erromatarrek inspiraziotzat hartu zuten beren antzerkia garatzeko, batez ere komedian oinarrituko zena.

Erdi Aroan, Europako paganismoaren aurka, eszena mitologiko kristauak eta Bibliako kontakizunak eratzen zituen antzerki mota bat sortu zen, baina XV. mendean, Errenazimentuaren laguntzarekin, obrek hainbat mito klasiko berreskuratu zituzten eta erlijio-betebeharretik askatu ziren. Geroztik, antzerki-ikuskizunaren forma berriak loratu ziren kontinente osoan, hala nola tragikomedia, melodrama, antzerki naturalista, absurdoa, abangoardiak eta, gaur egun arte, ikuslearen emozioekin konektatzen eta etengabe berritzen saiatu den antzerki garaikidea.

2.2.1 *Euskal Herrian*

Euskal Herriak ez du Europako beste herrialdeen zidor berbera egin, are gutxiago Espainiakoarena. Nahiz eta, ezbairik gabe, Espainiako antzerkia luzaroan itoa izan antzezlanak askatasunez adierazteko eta sortzeko unean, garai frankistan zehar antzerkigileek zentsura latz bati aurre egin baitzioten, Euskal Herriko antzerkiaren historiak hauteman izan ditu gorabehera handiagoak eta muturrekoagoak, ibilbide laburrago batekin lepoan. 1882an kokatzen da euskal antzerkiko lehen lan idatzia, Marcelino Soroaren «*Anton Kaiku*». Haatik, Aizpea Goenagak (2021) nabarmendu bezala, euskal antzerki-adierazpen tradizionalak askoz zaharragoak dira, XVII. mendekoak hain zuzen ere. Horren adibide: pastoralak eta maskaradak. Zuberoan dute jatorria biek: lehena bertsoan kantatzen da, gai erlijioso edo klasikoei buruz, musikaren eta dantzaren laguntzarekin, eta bigarrena inauteriei lotutako antzerkia da. Euskal Herriko beste eremuetan ere aurki daitezke halako errepresentazio herrikoiak, adibidez Xaribariak Nafarroan edota Tobera Gipuzkoan. Ikus daiteke, hortaz, euskal antzerkia uste dena baino zabaldiago zegoela antzina.

Soroaren antzerki testuaren taularatzetik aurrera, Ilustrazioaren eraginez, hainbat kultura zale izan ziren euskal antzerkiari hauspoa eman zietenak, Toribio Alzaga izanik garrantzitsuenetakoa. Bigarren Errepublikaren garaia izan zen, Idoia Gereñu Odriozolaren arabera (2016), euskal antzerkiaren goren aldiaren lekuko, herritarren artean euskararekiko eta euskal identitatearekiko interesa hazi egin zelako. Antzezlanak euskal gizarteaz, kulturaz eta ohiturez mintzatzen ziren, euskal zaletasuna are gehiago indartzeko asmoz. Odriozolak, hala ere, antzerkiak Gerra Zibilean gainbehera ikaragarria pairatu zuela adierazten du, erbesteratutako idazleen lanak (itzulpenak orobat) eta

Iparraldekoenak izanda haren biziraupena bermatzen zuten bakarrak. Kalitate artistikoari erreparatuz, gaiak ez ziren batere berritzaileak; izan ere, gerraurrekoetan trabatuta geratu ziren. Gerraostean, hamarkada bat eta zentsura frankista igaro ondoren, euskal antzerkiaren berpizkundea jazo zen, moldeak hautsi eta proposamen progresistak zituzten gazteek sortutako antzerki talde iraultzaileei esker. Horrela, arte eszeniko honek garrantzi izugarria lortu zuen Euskal Herrian. 60ko hamarkadan *Jarrai* taldea sortu zen, eta euskal antzerkia zaharkitua kritikatu, inoiz landu gabeko gaiez jositako testu modernoak idatzi eta atzerriko hainbat itzuli zituzten. Garai hori hartzen da euskal antzerkiaren inflexio-puntutzat.

1980tik aurrera, eta gaur egunera hurreratuz, euskararen normalizaziorako politikei eta lan baldintzen hobetzeari esker, antzerkiari prestigioa eman zaio azkenean, eta bai material teknikoa, bai maila artistikoa eta bai lengoia dramatikoak garatu dira. Teatro taldeak ugaltu eta sendotu egin dira, eta haiekin batera, antzezlanen ekoizpena: Eusko Jaurlaritzak¹ eta Euskadiko Antzoki Sareak² argitaratutako txosten estatistikoaren arabera, mila emanaldi inguru egiten dira urtean, asko eta asko euskarazko antzezlanak eta gehienbat hurrei zuzendutakoak. Mendearen hasieran, Mari Jose Olaziregik (2003) ziurtatuta, eskaintza eszenikoak %65eko igoera izan zuen, eta horrek ondorengo faktoreen bultzada izan du: antzerkiari bideratutako dirulaguntzak, ekitaldiak, jaialdiak eta sariak. Aizpea Goenaga eta Pedro Barearen (2021) aburuz, publikoa urria izaten jarraitzen duen arren, egun kalitate handiko muntaiak egiten, esperimentazio eta bide berriak eraikitzen eta ekoizpen-eredu berriak sortzen dira, eta euskal antzerkiak hizkuntza unibertsala bereganatu du. Esan daiteke, beraz, arte mota hau etengabe eboluzionatzen eta lantzen ari dela, atsedetik eman gabe.

2.2.2 *Estatu Batuetan*

Estatu Batuen kasua ere dugu aztertzeko mahai gainean, GRALean itzulitako antzezlanen herrialde hartatik baitatorkigu. Gainerako diziplina artistikoen antzera, hango antzerkia tradizio dramatiko europarra, gehienbat ingelesa, imitatzeko asmoz jaio zen. Hala ere, XX. mendean erdietsi zuen bere autonomia, Eugene O'Neill eta Tennessee Williams antzerkigile errealisten eskutik Fuensanta Muñozen (2010) ustetan, eta amerikar

¹ <https://www.euskadi.eus/estadistika/productores/actividad/numero-de-representaciones-realizadas-por-los-agentes-productores-por-tipologia-de-agente-y-lugar-de-representacion/web01-ejeduki/eu/>

² https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/est1_1010/es_est1/adjuntos/Txosten_Estatistikoa_2007-2009-3-SAREA.pdf

komedia soziala izan zen lehen genero autoktonoa. «Blog EEUU» webgunean irakurri daitekeen arabera, 20ko hamarkadan, musikalek sekulako arrakasta eskuratu zuten Broadway-en, eta Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan, Estatu Batuetako antzerkiak nazioarteko ikuspegia euren norabidera aldatu ondoren, kalitate-muina ailegatu zen, eta bere arrakasta herrialdetik kanpo hedatu, gaur egun arte (izan ere, Amerikako antzerki genero nagusia musikala da). Kantua, dantza eta komedia ditu ardatz, eta historian zehar gai sozialez hitz egiteko erabili izan da, hala nola homosexualitateaz, HIES-az edota arrazismoaz, besteak beste. Arcadia Publishing aldizkariak (2018) jasotakoa gogoan, musikalez gain beste antzerki motak ere gero eta landuagoak, eraberritzaileagoak eta ospetsuagoak bihurtu dira Estatu Batuetan, errotik transformatzeko eta garaiko egoera sozialera moldatzeko gai izan den industria prestu eta bizi baten laguntzarekin.

2.3 Antzerkiaren itzulpena: irizpideak eta zailtasunak

Antzerkiko itzultzaileak hainbat eta hainbat zailtasun eta oztoporekin egiten du talka; lehenik eta behin, bidebanatze garrantzitsu bat agertuko zaiolako itzultzen hasi aurretik: argitaratzeko besterik izango ez den obra bat itzultzea, edo eszenatoki batean antzeztuko den bat itzultzea. Bigarrena baldin bada kasua, deritzo Tamara Sousa Villafainak (2005), itzultzaileak kontuan hartu beharko ditu bai alderdi linguistikoak (sinbologia, metaforak edo egilearen asmoak) bai eta extralinguistikoak (keinuak edo pertsonaien jarrerak eta mugimenduak). Hau da, itzultzailearen funtsezko arazoa xedestuari antzezgarritasuna izango da, aktoreak errezitatzeko modukoa.

Antzezgarritasun horri eusteko, lehen pausoa itzulpen perfektu bakar baten ideala ukatzea da, antzerki testu baten hitzekiko eta perpausen hurrenkerarekiko fideltasuna, haren ezaugarri soziokulturalak, historikoak eta ideologikoak bizkarrera igota, ia utopiatzat jotzen delako. Helburua, antzezgarria izateaz gain, xede-kulturako ikusleek ulertzeko modukoa ere egitea da. Elkarrizketak dira, batik bat, antzerki testuak, hortaz, xede-hizkuntzako hizkera naturala zukutzen saiatu behar da, esaldiak idatziak izango ez balira bezala, eta horretarako sorburu-testutik gutxieneko aldentze bat gauzatzeko premia dago. Alejandro Lapeñak (2019) honakoa adierazi zuen elkarrizketa batean: «en vez de fijarse tanto en las palabras hay que fijarse más en lo que el personaje quiere decir». Aktorearen ahoan ondo funtzionatu behar du, eta zorionez, baditugu hori erdiesteko baliabideak, hala nola, euskararen kasua gertutik behatuz, hizkera kolokialetik eta kalekotik abiatzea eta lokuzio kalkatuak, loturako hitzak, erdarakadak edota hitz

betegarriak erabiltzea. Gainera, Julia Marinek (2013) harro azpimarratu zuen bezala, euskaraz ahozko tradizio aberatsa dugu, bertsolaritza edota ipuin-kontalaritzaren eraginez:

Badaukagu, beraz, zer hari-muturri tira egin. Uste dut gure arteei ez diegula ateratzen eman dezaketen etekin guztia. (Julia Marin, 2013)

Hala ere, erregistroa eta testuingurua ere aintzakotzat hartzea komeni da, garai jakin bateko tankera irudikatu nahi bada, bere tasunak errespetatu eta islatu beharko baitira: lexiko jaso edo arkaikoa, figura erretorikoak, hitz-jokoak...Edo, pertsonaiaren ezaugarri linguistikoari erreparatuz, akats gramatikalak, zentzu bikoitzak, azentu atzeritarra, neologismoak, ahoskatze okerra, eta abar. Hori guztia kontsideratzea ez da lan erraza, erronka tentagarria agian, baina gaindiezina noiz edo noiz.

Txanponak bi aurpegi ditu, ez baitira hitzak miatu beharreko bakarra. Hamaika dira, gorago aipatu bezala, kontuan hartu beharreko aspektuak antzerki itzulpen batean murgildu baino lehen: pertsonaia izenak eta leku edo kultur erreferentziak (bere horretan uztea ala egokitzea, horra hor auzia), interjekzioak, esaldien erritmoa, intonazioa, hitzen enfasia, abiadura, tonua, keinuak, nori zuzentzen zaion pertsonaia, eszenatokiko jarrerak garrantzia ote duen, zeharkako aipamenik egiten ote zaion jantziren edota objekturen bati...Testutik kanpo hezurramitzen diren estrategia dramatiko, espresabide eta dimentsio ugari sartzen dira itzultzailearen enkarguan, eta bi hizkuntzak eta kulturak ondo baino hobeto ezagutu ez ezik, ahalmen sortzailearen eta ikur extra linguistikoak igartzeko maila handia izatea ere eskatzen zaio. Antzerkia, azken finean, ez da eleberria bezalakoa, perspektiba askoz anitzagoak ditu, eta Julia Marinek (2013) argi uzten du zailtasun horien guztien zergatia: «ez dugu behar beste kontuan hartzen mezuaren osotasuna».

4. Jatorrizko testua: azterketa

Azterketarekin hasi aurretik, garrantzitsua iruditzen zait argitzea itzulitako lan hau David Ivesek 2010ean taularatutako *Venus in Fur* antzezlan delako, eta antzezlan hori Leopold Von Sacher-Masoch idazle austriarraren *Venus im Pelz* eleberriaren egokitzapen estatubatuarra.

Fernanda Savagek (1921) Leopolden eleberria itzuli zuenean, David Ivesek antzerkira egokitu aurretik, egilearen honako biografia hau txertatu zuen itzulpenaren

sarreran: Leopold Von Sacher-Masoch Lembergen jaio zen, Austrian, 1836ko urtarrilaren 27an. 1873an Aurora von Rumelinekin ezkondu zen, zeinak, Wanda von Dunajew goitizenaekin, eleberriak idazten zituen. Sacher-Masoch ere idazle izan zen, ezaugarri historikoak folklorikoekin, politikoeekin eta erotikoeekin nahasten dituen zenbait eleberri eta kontakizun argitaratu zituen, eta haiei esker lortu zuen ospea. *Cainen Legatua* izeneko sagaren zati da Larruetako Venusa³ liburua, istorio eta gai ugari biltzen dituzten beste bostekin batera. Jorrotutako gaiak maitasuna, jabetza, estatua, gerra, lana eta heriotza dira, eta Larruetako Venusa maitasunari lotutako «sailean» kokatzen da.

Harreman sadomasokistez mintzatzen da liburuan, sufrimenduaren plazer sexualaz; testu oso aurreratua da bere garairako, XIX. mendeko gizartean emakumeak zuen behe-mailako rola jartzen baitu ikusgai, beste auzi batzuen artean. 1893an, Richard von Krafft-Ebing psikiatra alemaniarrek idazlearen izena mailegatu zuen «masokismo» terminoa sortzeko, Gerardo Castaño Recuerok (2020) ondo definitzen duen bezala, «menperatzearen, umiliazioaren eta min fisiko eta psikikoaren bidez plazera lortzeko jokabide sexuala» deskribatzeko erabiliko zena. Austriarrak ez zuen nahigabeen idatzi gai zehatz hartaz, liburua idaztearekin batera bere fetitxea ere aitortzen ari zelako.

Eleberriak Severin von Kushemski eta Wanda von Dunajewen (Sacher-Masochen emaztearen izen berekoa) arteko harremana kontatzen du. Leslie Vanessa Naranjo Medinak (2017) argi laburtzen du istorioa: Severin Wandaz maitemintzen da ikusten duen lehen unetik, eta esklabo hartzea eskatzen dio, umiliatzea, gaizki tratatzea, jipoitzea eta beste gizonekin engainatzea. Hasieran, Wandak zalantzek inguratua ikusten du bere burua, ez baitago oso ziur zuzena ote den eskaera onartzea, baina apurka-apurka gero eta erakargarriagoa egiten zaio proposamena, eta gogo handiz asetzen ditu Severinen nahiak. Florentziara bidaiatzen dute, eta han Alexis izeneko greziar bat ezagutzen du Wandak. Maitasunak eta pasioak gidatuta, Alexisek Wanda menperatuko du (Wandak hala nahi izango du), eta, Severini zartadak eman ondoren, ohean utziko du lotuta, maitaleek ihes egin dezaten zoriontsu.

Istorio hau ez da errealitatetik asko urruntzen. Izan ere, Manuel Sánchez Ledesma (2016) dioen moduan, Sacher-Masochek Fany von Pistor maitalearekin izandako erlazioan oinarritu zuen lana. Liburuan agertzen den antzera, sei hilabetez Fanyren

³ von Sacher-Masoch, L. (1870): *Venus im Pelz*. Das Vermächtniß Kains. Erster Theil. Die Liebe. Zweiter Band. Cotta, Stuttgart.

esklabo izango zela eta edozein zigor jasotzeko prest zegoela adierazten zuen kontratu bat sinatu zuten biek. Gainera, Leopoldekin krudel jokatuko zuen bakoitzean, Fanyk larruzko beroki bat jantziko zuela aitortzen zuen bertan; hortik, beraz, *Larruetako Venusa* izenburua. *Venus* izenari dagokionez, idazleak Tiziano Vecellio margolari italiarraren 1555eko *Venus allo Specchio* («Ispiluko Venusa») hartu zuen inspirazio, eta espresuki aipatu eleberri barruan. Eleberriko pasarte gehienek nolabaiteko autobiografia isurtzen dute, ikus daitekeenez.

2010ean, David Ives antzerkigile iparramerikarrak Sacher-Masochen obra hartu eta antzerkira egokitu zuen, eta 2013an, Roman Polanski zuzendariarekin, zinemara; bi lanak eleberriko izenburu beraren azpian: *Venus in Fur*. Antzezlanak taularatu eta istantean izan zuen sekulako arrakasta, munduko hainbat herrialdetan haren bertsioak egiteko punturaino. 2014an Espainian estreinatu zen, David Serranok zuzenduta eta *La Venus de las pieles* izenburuarekin.

Antzezlana, nolana ere, jatorrizko lanak baino korapilatsuagoa eta geruza anitzagokoa irudi dezake. Tomas Novachek eta Vanda Jordan ditugu protagonista. Hasiera-hasieran, Tomas telefonoz ari da bere neska-lagunarekin, jasan izan dituen proba negargarriez gogaituta, ez baitu bere antzezlana Wandaren papererako aktore egokirik topatu. Tomas antzerki zuzendaria da; David Ivesen berraragiztatzea, beharbada. Bat-batean, ekaitz baten erdian, Vanda izeneko aktore bat azaltzen da estudioan, atzeratu izanagatik barkamen eta proba bat egiteko arrenka eske. Zuzendariak, azkenean, onartu egiten du. Antzeztu beharreko lana, jakina, Sacher-Masochen *Larruetako Venusa* da. Casting osoan zehar, bi protagonistek eleberria eta bere elementuak analizatzen dituzte, hala nola suerta daitezkeen komentario sexistak, pertsonaien (Severinen, Wandaren eta Venusen) jokabideak eta eboluzioa, eta eleberri osoko tonu pornografikoa. Gainera, idazlearen obsesioak, desirak eta barne-gatazkak ere eztabaidatzen dituzte; antzerki itzulpen baterako funtsezkoak izan daitezkeen osagaiak, alegia. Ez hori bakarrik, Vandak garaiko jantziak jarri eta erraminta sadomasokistak erabiltzen ditu, antzezlana sakonki ulertzeko. Hala ere, sarritan kritikatu du obra, pornografia iruditzeaz gain, umiliagarria eta emakumeentzako irain bat dela baitio. Tomasek, berriz, aurre egingo dio, bere ikuspuntua irmoki defendatuz, batzuetan matxismoan hondoratutako argudioekin.

Tomasek pertsona harroputz, suminkor eta misogino baten itxura du, intelektuala eta segurua ere badirudi, baina orobat autoritarioa Vanda trauskil, lotsagaldu, baldar eta

ezjakinaren aurrean, hasieran gidoia prestatu gabe eta jatorrizko lana ezagutzen ez duela ematen du-eta aditzera. Hala ere, antzezlanaren aurrera doan heinean, rola aldatu egingo dira, eta Tomasek, bere segurtasun falta eta zaurgarritasuna oharkabean agertuz, ordura arte ezkutuan zegoen Vanda batek menperatua ikusiko du bere burua. Vanda, López Quintás Fundazioak azaldu bezala, emakume zakarra eta zalapartatsua izatetik XVIII. mendeko aristokrata apaina izatera pasatuko da, eta, tupustean, obra goitik behera eta aurretiaz ezagututa, une orotan kontrolatu izan duen botere-joko batera arrastatuko du Tomas. Jokoan bertan, gainera, pertsonaiak etengabeko joan-etorrian ibiliko dira protagonisten baitan, deabruak hartuta egongo balira bezala. Fikzioa eta errealitatea gurutzatu eta korapilatu egiten dira, unada batean (antzezlanaren amaierarako bidean) antzezlaneko rola alderantzikatu eta Vandak Severin menperatzaile bat haragitzen duen punturaino. Tomas, bere desio barnekoenek manipulaturik eta emoziozko tirain horretan urperaturik, bi denbora-espazioen (Tomasen eta Vandaren castinga, alde batetik, eta Severinen eta Wandaren kontakizuna, bestetik) arteko zedarrak lausoa galtzen du bistatik, harik eta, Vandak Venus jainkosaren itxura hartzen duenean eskuak aulki batera lotzen dizkion arte. XVIII. mendeko eleberrian gertatzen den moduan.

5. Itzulpenaren analisia

Itzulpenari buruzko gogoeta egiteko, hainbat alderdiri eta zailtasuni eutsi dakiok, hala nola izenburuaren itzulpenari, hitz-jokoaren egokitzapenei, ortografia alemaniarraz transkribaturik hitzen egokitzapenari, didaskalietako aditzen aspektuei, kultur-erreferentzien neutralizazio edota mantentzeari, aipuei, genero-markei edota izen bereziei, baina iruzkin hau «oztopotzat» hartu ditudan ondorengo bi ataletan sailkatu dut: hizkuntza-erregistro kolokiala eta jasoak. Lehenik, erregistro mota bakoitzeko ezaugarriak eta puntuak azalduko eta jorratuko ditut, eta, bigarrenik, biek partekatzen dituzten zenbait gaitan eta eremutan (sexuari lotutako lexikoa, sadomasokismoari lotutakoa, biraoak eta irainak) gertatzen den bereizte lexikala erakutsi eta parez pare jarriko ditut. GRALeko zati honen xedea, hortaz, itzulpenaren nortasuna nolabait baldintzatu eta ernatu duten aurpegi horiek analizatzea da. Aipatu nahiko nuke, baina, izen bereziei murrizki erreparaturik, obrako Thomas protagonistari H letra ezabatu diodala euskarazko bertsioan, hots, Tomas izendatu dudala, izenak forma latinagoa har dezan eta antzezlanarentzat

errazagoa izan dadin irakutzeko, ingeleseko *Raphael* izena (testuan agertzen da) gazteleraz zein euskaraz *Rafael* eman den eran.

Pertsonaien erregistroa markatzea etengabeko gatazka izan da itzulpen prozesuan; izan ere, jatorrizko testuaren analisisan azaldu dudak bezala, lana hainbat geruzaz osatuta dago, horien artean egungo errealitateaz (Tomas Novachek eta Vanda Jordanen arteko elkarrizketa) eta fikzioaz (Severin Kushemski, Vanda von Dunayev eta Venus jainkosaren arteko elkarrizketak). Gainera, bi dimentsioak nahastu egiten dira noizbehinka, eta horrek erregistro aldaketa drastiko bat suposatzen du, bai lexikoan, bai perpausen sintaxian bai eta beste faktore batzuetan, hala nola biraoetan eta interjekzioetan. Errealitatea irudikatzen duen elkarrizketari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu, halaber, soziolekto-arrakala dagoela Tomas eta Vandaren artean, bien adinak marratuta: Vandak 24 urte inguru ditu, eta Tomasek 40 inguru. Belaunaldiak ez dira berberak, ezta adierazteko modua ere. Vandaren kasuan, jatorrizko obran hainbat makuluhitz ikus ditzakegu, hala nola *anyway, whatever, like* eta *yeah*. Era berean, onomatopeia eta interjekzio ugari adierazten ditu, *mmm, oh, hey, huh* eta *wow*, besteak beste. Horietako askorentzat ez dago euskarazko baliokide finkaturik, eta, beraz, beti izango da xedehizkuntzako testuinguruaren eta interpretatze pragmatikoaren arabera nola itzuli erabakitzeke. Horregatik ez da beti berdina itzuli, adibidez, harridurazko *wow* interjekzioa. Hona hemen, emandako baliokideak modu bisualagoan izateko eskura, gutxieneko konplikazio bat izan dezaketen adibideak biltzen dituen taula bat:

ST	Esaldia	XD
Wow (Vanda)	<i>Anatomy of Shadows?</i> Like, <u>wow</u> .	<i>Itzalen Anatomia?</i> <u>Ze pasada</u> .
	I shoulda seen that. <u>Wow</u> .	<u>Aiba!</u> Nola ez naiz konturatu?
	<u>Wow</u> . Old Leo was pretty intense.	<u>Bua</u> . Leo zaharra oso grinatsua zen.
Wow (Tomas)	<u>Wow</u> .	<u>Arranopola!</u>
Huh	She's like ready, <u>huh</u> .	Prest dagoela dirudi, e?

	Not bad, <u>huh</u> .	Dezente ona, <u>aizu</u> .
Whatever	<u>Whatever</u> .	<u>Niri bost</u> .
	I'm up for it, <u>whatever</u> .	Prest nago, <u>pronto</u> .
	Well, better late than <u>whatever</u> .	Hobe berandu <u>ez dakit noiz</u> baino.
Yeah	<u>Yeah</u> .	<u>A, klaro</u> .
	Hi. <u>Yeah</u> . I don't know yet.	Aupa. <u>Baip</u> . Ez dakit oraindik.
Anyway (Vanda)	<u>Anyway</u> , I'm at the temp agency.	<u>Bide batez</u> , aldi baterako laneko enpresa batean nago orain.
	<u>Anyway</u> , hey, you're happy.	<u>Eta, hala eta guztiz ere</u> , zoriontsua zara.
Anyway (Tomas)	<u>Anyway</u> , the book was a huge scandal in 1870.	<u>Eta horren ezjakinean bazaude</u> , liburuak iskanbila handia eragin zuen 1870an.
	<u>Anyway</u> ...	<u>Tira</u> ...

1. taula: Itzultako interjekzioen adibideak.

Bistan denez, oso gutxitan errepikatzen da baliokide bera (edo inoiz ez), interjekzio eta betegarri horien testuinguru bakoitza protagonisten asmo eta emozioekin lotuta baitago. Ondorioz, perpaus batzuetan, interjekzio bakarra bi interjekzioen konbinazio bihurtu da, («a, klaro»). Egoera bera dugu lokailu-lokuzio bihurtu den *anyway* lokailuarekin, beste juntagailu independente batekin batera: «eta hala eta guztiz ere». Beste testuinguru batean, oster, subjektu batek, aditz batek eta objektu zuzen batek osatutako enuntziatu oso bilakatzen da: «eta horren ezjakinean bazaude». Aldaketa horiek esaldiak eta, hortaz, antzezlanaz luzatzea eragiten du, baina garrantzitsuagoa iruditzen zait arreta elkarrizketen naturaltasunera eta pragmatikara zuzentzea, hasiera batean antzeztua izateko pentsatuta ez dagoen antzezlan baten iraupenera zuzentzea baino.

Baderitzot, askotan, interjekzioak eta bestelakoak, lagunarteko eta familiarterko hizketaldien ezaugarri bereizgarri horiek, parafraziak erabiliz euskaratu behar direla, baita erdarakadak erabiliz ere, nik egin bezala («klaro» eta «ze pasada» adibide gisa). Batzuei gaztelerazko hitzen erabilera euskara zikintzea iruditzen bazaie ere, proposamenen aniztasun horrek beste kolore batez tindatzen du itzulpena nire ustez, eta aberastasun lexikoa ugaritzen. Erdarakadez eta gaztelerazko makulu-hitzez beste esaldi askotan ere baliatu naiz, baina, beti ere, gehiegikeriarik ez egiteko arduraz. Egin nahi izandako bakarra izan da gaur egungo gazteon egoerari so egitea eta, horren arabera, erabaki arin batzuk hartzea, hau da, euskal gazteriak erabiliko lituzkeen esamoldeak, interjekzioak eta hitz betegarriak erreproduzitzea antzezlanean. Hori dela eta, saihestezina zitzaidan erdarakadak erabiltzea. Hona hemen erabili izandako batzuk:

ST	XT
<u>Yeah, maybe</u> she's just a woman.	<u>Ya, igual</u> emakume bat baino ez da.
No, you're <u>really</u> good.	Ez, <u>super</u> ona zara.
<u>Very good</u> . Fantastic.	<u>Ole zu</u> . Primeran.
Pretty wild stuff.	Kristoren <i>mobida</i> .
I'm <u>like</u> made for this part.	<u>En plan</u> paper honetarako jaio nintzen.
<u>Nah</u> , let's wing it.	<u>Keba</u> , goazen zuzenean egitera.
<u>Aw, shucks</u> . Now I'm all embarrassed.	Ai, <u>jope</u> . Gorritu egingo naiz.

2. **taula:** Erdarakaden adibideak.

Dakusagunez, barbarismoen erabilera, hein handi batean, interjekzio ingelesak ordezteko beharretik dator («keba» interjekzioa *nah* esateko eta «jope», *shucks* esateko), euskaraz interjekzio ugari egon arren, egokia iruditzen baitzitzaidan gaztelaniara jotzea Vandaren estatus soziala markatzeko. Gauza bera gertatu da zenbait adjektibo eta esamolderekin, *good* adjektiboa kasu, jatorrizko obran sarritan agertzen denez, behin «ole zu» gisara itzultzea erabaki dudalako. *Pretty wild stuff* esaldia, aldiz, «zoratzekoa izan» gisara itzuli beharrean, «kristoren *mobida*» erabili dut baliokide. Tomasen kasuan, beste belaunaldi batekoa izanik, euskararen berezko hitzak ekarri ditut obrara. Bi adibide oso argi daude: *yeah* eta *maybe*. Bi protagonistek aipatzen dituzte, baina Vandak «ya» eta «igual» esaten du, eta Tomasek «hala da» eta «agian». Ahozko hizkeran, litekeena da

euskal gazte batek gaztelerazko bi hitz horiek erabiltzea euskaldunak baino lehenago. Horregatik, erdarakaden hautaketa egiteko, ohiko kode-aldaketan eta lagunarteko eta kaleko elkarrizketetan izandako esperientzia pertsonalean oinarritu naiz.

Itzulpenean, guztizko hitz-kopurua 11.776 dela aurreikusita (puntuazio markak barne), erdarakaden dentsitatea 0,59% da, hau da, 68 unitate lexikal, errepikapenak kontuan hartuta: horietatik 28 interjekzioak dira, 23 adberbioak, 7 adjektiboak, 5 onomatopeiak eta 2 izenak. Gehienak Vandaren elkarrizketetatik datoz, eta Tomasen ekarpena kopuru horren 0,016% da, gaztelaniatik mailegatutako hitz gutxi batzuk erabiltzen baititu, «joe» edo «aber», esaterako.

Venusek, Vanda von Dunayev eta Severin Kushemski pertsonaiekin batera, hizkera jaso «besarkatzen» duen dimentsioko zutohiala darama (hau da, Austria-Hungariako Inperioan girotzen den dimentsiokoa), iruzkinaren hasieran finkatu dudak bezala. Antzezlaneko atal honetan ez da barbarismorik aitortzen, lexikoak gutxienezko maila tekniko eta formal bat erakusten du («diletante» edota «hedonista» konparazione) eta kale-hizkeratik urruntzen diren hainbat adjektibo eta izen azaleratzen dira (adibidez «onestasun», «dohatsuki» eta «erdietsi»). Gainera, beste literatur adierazpen batzuei ere aurre egiten zaie elkarrizketa horietan, poesia eta idatzizko prosa ere (egunerokoa) baitaude barne. Poesiaren kasuan, orain arte landutako joskera baztertzea eta erriman, musikaltasunean eta metrikan jardutea eskatzen du. Horrenbestez, antzezlanaren barruan salto kronologikoak jazotzen direnean, kontu handiz ibili behar izan dut erregistroak eta esaldien estiloak korapilatu ez daitezela elkarren artean.

Erdarakaden harira etorri, XXI. mendea irudikatzen duen dimentsiora bueltan, baieztatzeko dut ez duela itzulpen guztiak kutsadura linguistikoa jasan; izatez, euskal harridura-marka, onomatopeia eta esapide peto-peto gehiago erabili ditut erdarakada kopuruarekin konparatuz, «gazteek bigarren hizkuntzetatik mailegatutako hitzez jositako kaleko hizketen» eta «euskal hizkuntzaren sustraien eta purismoaren» arteko oreka aurkitzeko, eta Euskal Herriko eremu espezifiko batean kokatua izateko beldurrik gabe. Azken adierazpen horren zergatia bizkaierazko zenbait hitz eta interjekzio erabili ditudalako da, batez ere kostaldeko herrietakoak:

ST	XT
And what's this?	<u>Txo</u> , eta hau?

Will you stop it? You're so goddamn coy.	<u>Txo</u> , utziozu tonto-plantak egiteari.
Well, listen, go fuck yourself.	<u>Alabatxi</u> , entzuidazu: jan kaka.
No, everything's cool.	Ez, ondo nago, <u>tenplau</u> .

3. taula: Dialektoen kutsua duten esaldien adibideak.

Erabateko esaldi dialektaletaraino heldu gabe, euskal literaturan euskalkien tokitxoak ere aldarrikatzeko modu bat da, baita gaur egungo (eta betidaniko) kaleko hizkeraren nortasuna zein den erakusteko modua ere, den-dena baitago (euskara batua barne) zokalo beretik eraikita.

Bereziki konplikatua eta kontuzkoa iruditu zait pertsonaia bakoitzak esango lituzkeen hitz gordinak aukeratzea (XXI. mendeko pertsonaiak zein XIX. mendekoak); izan ere, prozesu horrek partaide guztien estatus soziala eta testuinguru historikoa izan behar ditu irizpide. Hau da, oso litekeena da Vanda Jordanek ez erabiltzea Vanda von Dunayeven irain berberak, bi garai ezberdinetan bizi baitira. Faktore hori kontuan hartuta, hona hemen adibide batzuk:

ST	Pertsonaia	XT
Insolent swine!	Vanda von Dunayev	Txerrikume lotsagabea!
I'm just a <u>stupid bitch</u> who walked in here looking for a job.	Vanda Jordan	Lanpostu bila etorri den <u>patetika burugabe</u> bat baino.
My darling little <u>idiot</u>	Vanda von Dunayev	Nire <u>txotxolo</u> maitea
How can you be so <u>stupid</u> ! [...] You <u>fucking idiot</u> .	Tomas Novachek	Nola izan zaitezke horren <u>ganorabakoa</u> ? [...] <u>Inuzente ustela</u> .
Asshole	Vanda Jordan	Pailazoa
You little piece of nothing! You dust!	Vanda von Dunayev	Sastar alfer hori! Ziztrin hori!
You simpleton	Vanda von Dunayev	Asto kokoloa!

4. taula: Itzulitako irainen eta biraoen adibideak.

Tomasek eta Vandak azken hamarkadetan nahiko entzunak diren eta gazte gehienei gutxieneko laidoa eta seriotasuna ezar dezaketela irudi dakizkiekeen irainez baliatzen dira. Joseba Aurkenerenak (2015) elkarrizketa batean azaldu bezala, gaur egun euskararen galera igarotzen ari gara irainen esparruan, hirietan eta eremu urbanoetan jendeak ez baitu berdin sentitzen gazteleraz eta euskaraz gauza bera esatean. Horregatik egozten dira frantsesezko edota gaztelerazko irainak euskarazkoen gainean («pailazo» eta «*patetika*» kasu). Hala ere, Aurkeneraren hitzetan, «nekazal arloko guneeetan egunero eta pila bat erabiltzen dira euskal irainak», eta gainerako tokietan oraindik ez dute indarra galdu haietako batzuek, adibidez goiko taulako «ganorabako» eta «inuzente». Vanda Dunayev, bere aldetik, oraindik naturaltasunez erabil daitezkeen baina, herriaren arabera, antzina bezain indartsu estima ez daitezkeen zenbait irain erabiltzen ditu, «txotxolo» edo «sastar» esaterako, eta animalien erreferentzia ugari erabiltzen ditu: «asto kokoloa» edota «txerrikume lotsagabea».

ST	Pertsonaia	XT
Fuck! Fuck!	Vanda Jordan	Kaka putza!
		A ze kaka!
So <u>fuck you</u> .	Tomas Novachek	Zoaz zu pikutara.
God damn it.	Tomas Novachek	Mila deabru!
Go fuck yourself!	Vanda Jordan	Jan kaka!
What's The Bacchae?	Vanda Jordan	Zer <u>ostia</u> dira Bakanteak?
The <u> fucking </u> train gets stuck in a tunnel	Vanda Jordan	Tren <u>puta</u> tunel batean gelditu da
Two-fifteen. <u>Shit</u> .	Vanda Jordan	Ordu biak eta laurden. <u>Joder</u> .
Vanda is 24, <u>for God's sake</u> .	Tomas Novachek	Vandak 24 ditu, <u>Jainkoarren!</u>
<u>My God</u> , I adore you	Vanda von Dunayev	<u>Ene maitea</u> , adoratzen zaitut.

5. taula: Itzulitako interjekzio gordien adibideak.

Kutsu gordineko esamoldeek eta harridura-markek ere egiten dute bereizte kronologiko eta soziolektiko hori. Analiza dezakegu, alde batetik, Vanda Jordanek

«kaka» terminoaz osatutako zenbait esamolde mingarriekin maneiatzen dela, baita gazteleratik hartutako interjekzio nahiko zabalduekin ere (*joder*, *puta* eta *ostia*). Tomasek, beste aldetik, oraindik entzun daitezkeen baina belaunaldirik berrienetan oso arruntak ez diren interjekzioak erabiltzen ditu, adibidez «mila deabru» eta «Jainkoarren». Vanda von Dunayev, azkenik, umiliazio kontuetan badabil ere, orokorrean hitz aski goxoekin eta txeratsuekin jolasten da («ene» eta «ene maitea»). Adibide-zerrenda horrekin beha dezakegu, horrenbestez, irainek garaiz garai eta belaunaldiz belaunaldi izandako botere- eta ospe-eboluzioa, hau da, haien indarraren, asmoen eta erabileraren beharakada, gorakada edota ordezkapena.

Ehunekoiei dagokionez, irainei eta kutsu gordineko edo Jainkoari erreferentzia egiten dien interjekzioek testuaren 0,87% osatzen dute, 97 izanda zifra zehatza, 63 behin kontatuz gero. Irainik edota hitz gordinik arruntenak «kaka», «inuzente» eta «puta» dira.

ST	XT
<u>He's fucking me</u> , Stacy! He's got me on the floor and <u>he's fucking me up the ass!</u>	<u>Txortan gaude</u> , Stacy! Lurrean nauka eta <u>ipurditik sartu dit zakila!</u>
Kushemski's <u>hot</u> for the Count	Kondeak <u>buztana tentetzen dio</u> Kushemskiri. Kondeak Kushemskiri <u>tilin-tilin egiten dio.</u>
Most playwright-slash-directors woulda had me <u>up-ended</u> on the floor by now.	Antzezlarri-barra-zuzendari gehienek <u>lau hankatan</u> izango nindukete lurrean dagoeneko.
You could make me <u>lose all sense of rank.</u>	<u>Txoratuta</u> izango nindukezu.
[...] while this <u>guy's</u> trying to <u>penetrate</u> me.	[...] <u>kanpai-jole</u> hark <u>ipurditik sartu</u> nahian zebilkidanean.

Or is she just so <u>horny</u> she doesn't care how she <u>gets off</u> ?	Edo bakarrik oso <u>pottobero</u> zegoela eta ez ziola inporta nola <u>eiakulatu</u> ?
Hello gorgeous!	A ze mutil-katxarroa!

6. taula: Sexuarekin lotutako lexikoaren adibideak.

Goiko taulak sexuari lotutako lexikoaren itzulpenak aztertzen ditu. Harritzekoa ez bada ere, zazpi adibideetatik sei Vanda Jordanen elkarrizketetatik aterata daude, eta nolabaiteko erabilera naturala erakusten dute. Zazpigarrena Vanda Dunayevек esandako esaldi bat da, *you could make me lose all sense of rank*. Adibide gehienetan, irainekin gertatu zen bezala, itzulpenak ez dira hitzez hitzekoak, indarra eta ulergarritasuna galduko liratekeelako. Horri aurre egiteko, Hurtadok (2001) azaltzen dituen zenbait itzulpen prozeduraz baliatu naiz, esaterako transposizioa (*he's fucking me* → «txortan gaude», euskarazko baliokideak izenordain plurala eskatzen baitu), sorkuntza diskurtsiboa (*Kushemski's hot for the Count* → «Kondeak buztana tentetzen dio / tilin-tilin egiten dio Kushemskiri», xede-hizkuntzan ahozko hizkera naturala eratzeko asmoarekin. *Guy* → «kanpai-jole», karga pragmatikoan efektu gehigarri bat emateaz gain, testuinguruko energia trinkotu eta pertsonaiaren jarrera itzulinguruka ibili gabe salatzen du), egokitzapena (*up-ended* → «lau hankatan», jatorrizko terminoak posizio sexual bertikal bat adierazten badu ere, xede-kulturan irudi horrek ez du sorburu-kulturan izan dezakeen eragin bera), kondentsazioa (*make lose all sense of rank* → «txoratuta izan») eta orain arte gehien errepikatutako mota, baliokidetasuna (*horny* → «pottobero», *get off* → «eiakulatu», eta abar).

Proposamen eta ideia horiek guztiak Urtxintxa elkartearen⁴ eta Gazte Gara Gazte proiektuaren⁵ gazte-hizkeraren inguruko hiztegien laguntzaz bildu eta jaso ditut, betiere kontu handiz eta egungo euskal gazteak aintzat hartuta.

ST	XT
Did you think you could <u>subjugate</u> me?	<u>Azpiratuko</u> nindukezula uste zenuen?
I haven't <u>disciplined</u> you sufficiently.	Ez zaitut behar bezala <u>diziplinatu</u> .

⁴ <https://www.urtxintxa.eus/jolasguneak/gazte-hizkera/>

⁵ <https://gazteak.ahotsak.eus/gazte-hiztegia/?terminoa=&search=Bilatu>

No man is worthy of <u>dominating</u> a goddess. He's only worthy of being <u>subjugated</u> by her.	Gizon batek ere ez du balio jainkosa bat <u>dominatzeko</u> . Bakarrik balio du hark <u>menperatua</u> izateko.
I'll <u>kneel</u> to her	haren oinetan <u>belaunikatuko</u> naiz
<u>Humiliate</u> me. <u>Degrade</u> me.	<u>Umilia</u> nazazu. <u>Makurraraz</u> nazazu.

7. taula: Sdomasokismoaren lotutako lexikoaren adibideak.

Azkenik, sexuarekin lotutakoarekin batera, sadomasokismoarekin lotutako lexikoa ere dugu ikusgai, nahiko interesgarria iruditzen zaidalako rol-jokoekin zerikusia duten aditzak aurkeztatzea. Termino multzorik handiena menperatze-jarreraren kokatzen da; bai gaztelerako maileguak («dominatu», «diziplinatu», «umiliatu») eta bai erabateko euskal terminoak («azpiratu», «menperatu») topa ditzakegu hemen. Sumisio-jarrerari dagokionez, kopurua askoz txikiagoa da («obeditu» kasu), eta horietatik apur batzuentzat menperatze-jarreraren taldetik hartutako terminoak erabili dira baliokide; modulazioa aplikatu da, alegia («menperatua izan»).

Ehunekoetara hurbilketa eginez gero, nabari da, sexuari zein sadomasokismoari lotutako lexikoa elkartuta eta termino bakoitza behin kontatu gabe, atal horrek testuaren 2,99% osatzen duela, 353 unitate lexikalekin, behin kontatu gabe. Sexuarekin lotutako terminoak, oraingoan errepikapenak baztertuta, 42 dira, eta sadomasokismoarekin lotutakoak, aldiz, 67.

6. Ondorioak

GRAL honen helburu nagusia euskal literatura orain arte oso ikusia, barreiatua eta normalizatua izan ez den beste esparru batera eramatea izan da, hots, mundu erotiko-sdomasokistara, «Venus in Fur» antzezlanaren itzulpenaren bidez. Itzulpena osatu ondoren, helburu hori bete dudala ondoriozta dezaket.

Halaber, 1. atalean aipatutako helburuak iritsi ditudala uste dut, antzerkiaren ezaugarrien eta historiaren gaineko ikerketa egin eta itzulpen-prozesuan borrokatu beharreko oztopoak eta kontuan hartzeko elementuak analizatu ditudalako (antzezgarritasuna, publikoa, kadentzia, ikur extralinguistikoak, eta abar). Jatorrizko lanaren eta haren egilearen azterketa sakona ere egin dut, eta, azkenik, testuko eduki

sexual-sadomasokistaren nahiz irainen eta biraoen berezitasunak eta euskal baliokideak erakutsi ditut.

Hori esanda, honako ondorio hauek atera daitezke, batetik, marko teorikoan bildutako informaziotik:

- a. Antzerkiak munduko zein adimeneko atea ireki dizkie euskaldunei, euskal antzerkiaren hastapenetan, euskal identitatearekiko eta hizkuntzarekiko harrotasuna aldarrikatzeko eta zabaltzeko erabiltzen baitzen. Jarrai taldearen sorkuntzatik aurrera, ordea, antzerkiaren moldeak hautsi eta mugarriak ebaki dira, eta beste herrialdeetako pentsamoldeak eta ideologiak etxera ekartzea lortu dugu, euskararen altxorrak eta garrantzia eklipsatu gabe.
- b. Egungo euskal errealitatea, sorkuntza eta ekoizpenaren aldetik, oso oparoa da. Erosotasunetik irten diren lan sakon eta fresko ugari egin dira aspaldiotan, hizkuntzak era ditzakeen zailtasun eta erronka guztiei aurre eginez eta tradizionalismotik apurka-apurka urrunduz, baina oraindik ez du merezitako aitortpena, eta publiko irrikatsu eta hazkor baten gabezia du; telebistaren kontsumoaren eraginez, beharbada.
- c. Lexikoak, gramatikak eta sintaxiak ez ezik, obra antzeztua izatekotan, berariazko garrantzia ere dute elementu hauek antzerki itzulpenean: ahoskatzeko idatzi diren eleen antzezgarritasuna, perpausak deklamatuak izateko egokiak diren ala ez erabakitzen duen aktoreen arnasketa, testuaren energia eta mugimendua aldatzen dituen erritmoa, hitzen esanahia eta konnotazioa definitzen dituen mimika, pertsonaien erregistroa eta antzezlanaren eszenaratzea. Implikazio soziologikoak eta kulturalak ere funtsezkoak dira itzultzean.
- d. Itzultzaileari, antzezlanaren taularatzekotan, hizkuntza- eta literatura-gaitasunez gain, eszenatokian eskarmenturik izan ez badu edo antzerki taldearekin elkarlanean egon ez bada, izugarri zaila izango zaio lana eraginkortasunez itzultzea, bizipen horrek gutxieneko pertzepzio dramatikoaz hornitzen baitu itzultzailea eta antzerkiaren paisaiak eta mekanismoa hobeto ulertzen laguntzen baitio. Antzerki itzulpenaren bidezidorrak banatu egiten dira «irakurtzeko obra» eta «antzezteko obra» bereizten diren unetik aurrera.

Itzulpenaren analisitik, bestalde, honako ondorioak atera ditut:

- a. Maiz, jatorrizko testuko hitzekiko fidelotasuna ez da bide zuzena. Antzerki itzulpenak berak eskatzen du testutik urruntzea, elkarrizketaz osatuta dagoenez, den-denak baitu pragmatika oinarri. Hitzei hainbeste begiratu ordez, pertsonaiak esan nahi duenari jarri behar zaio arreta handiagoa. Antzezlanak erabateko sinesgarritasuna galduko du itzulpen gisa «entzuten eta sumatzen» den unean. Horrek itzulpenaren kalitatea baxua dela adieraziko du.
- b. Irainak eta biraoak itzultzerakoan, konturatu naiz euskararen galera dagoela esparruan, gazte askori «barregarriak, neutralak eta indargabeak» iruditzen zaizkielako horietako hainbat. Gaztelerazko telesailen presentzia handiaren eraginez, hizkuntza horretako irainak sarriagotan erabiltzeko joera dago. Euskal Herriko eremu askotan, aldiz, badaude zakarkeria eta seriotasuna galdu ez duten zenbait irain bizirik, eta haiei heldu behar zaie azken arnasara arte.
- c. Erdarazko makuluei dagokienez, egia da idatzian ahozko jardunean baino toki gutxiago uzten zaiela, baina antzerkiaren jomuga, eta batez ere euskal antzerkiarena, naturaltasuna lortzea eta euskal kolokialismoaren errealitatea islatzea da. Hortaz, ez litzateke edonolako konplexurik egon beharko eta hiztunon artean zeharo barneraturik dugun euskara «kutsatu» hori antzerkian erreprimitu beharko. Gaur egungo euskaldunen mintzamoldea izan behar da gogoan.
- d. Hala ere, esateko dago euskara adierazpen idiomatiko autoktonoz beteriko hizkuntza autosufiziente eta dinamikoa izan daitekeela; saiatu beharreko bakarra, orduan, nahiz eta hizkuntzen abantzamendua eta erdaren inbasioa geldieztina dela onartzen dudana, euskarak berak eskaintzen dizkigun abaguneak ustiatzea da, eta datozen belaunaldiak haiek erabiltzera eta gaztelerazko baliokideak ahalik eta aldi gehienetan bazter batera uztera limurtzea. Ez bakarrik makulu-hitzak, baita sexuarekin, amodioarekin eta bestelako gaiekin lotutako esamoldeak eta terminoak.
- e. Euskarazko elkarrizketei indarra emateko, herrietako esamoldeak eta hitzak har daitezke, itzulpen honetan erabilitako Bizkaiko kostaldeko «txo!» eta «alabatxi!» interjekzioak, adibidez.
- f. Saihesteztina da esamolde idiomatikoak, ezaugarri kulturalak eta hitzen esanahiak itzulpen-prozesuan galtzea, baina garrantzitsuena antzezlanaren esentzia, aura eta mezua mantentzea eta babestea da, kosta ahala kosta.

Laburbilduz, antzerkia itzultzea ez da lan samurra. Testua ulergarria izateaz gain, ahoskatua izateko eta elkarrizketa natural eta sinesgarri bihurtzeko gai ere izan behar delako. Imajinaziozko mundu batetik ateratako hori geure munduko ohol gainera eraginkortasunaz ekartzea du xede itzultzaileak, eta hizkuntzatik kanpo geratzen diren ikurrak harmoniaz sartuz tartean. Antzezlanaren hitzei zorrozki fidela izateak ez dio jadetsi nahi den naturaltasunari mesederik egingo, ezta hizkera formalegia erabiltzeak ere. Horrenbestez, bereziki euskararen kasuan, komeni da hiztegietatik atzerapauso bat egitea eta maileguz beteriko ahozko euskal jardunaren errealtateari eustea, geure nortasuna ezagutzeko eta aitortzeko. Euskal antzerkiak badu oraindik zidor luzea bere aurrean, eta nahi izanez gero, edozein eragozpide linguistiko eta soziokultural zeharkatzeko trebetasuna aurkituko du bere baitan.

7. Erreferentzia bibliografikoak

Copeau, J. (1970) *Investigaciones sobre el espacio escénico*. Madrid, 96.

Errasti, I. (2007). *Hasi berritan antzerkia itzultzeaz*. Senez (32), 189-194.

Gereñu Odriozola, I. (2018) *Bazegonk amairu jarrai gabe?* 115-124.

Gereñu Odriozola, I. (2016). *JARRAI (1959-1968), abangoardiako euskal teatroaren ikur*. Getafe: Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea 65-540.

Gheon, H. (1944). *L'Art du théâtre : quatre causeries inédites données au Théâtre du Vieux-Colombier en 1923 et complétées en 1939 par un appendice « Quinze ans après »*. Éditions Serge. Montréal, 2019.

Goenaga, A. & Barea, P. (2021). *Antzerkia*. Etxepare Euskal Insitutua, 14-112.

Hurtado Albir, A. (2001): *Traducción y traductología: introducción a la traductología*. Madrid: Cátedra.

Naranjo Medina, L.V. (2017). *Temas teatrales en la película La Venus de las pieles, Polanski*. Universidad Complutense de Madrid, 1-12.

Olaziregi, M.J. (2003). *Euskal antzerki garaikideaz*. Lapurdum (8), 389-426.

Póveda, L. (2018). *Texto dramático: La palabra en acción*. Narcea S.A. de ediciones. Madrid, 16-209.

Romera Castillo, J. (2020). *Teatro de hoy y de ayer a escena*. Verbum argitaletxea. Madrid, 271.

Savage, F. (1921). *Venus in Furs*. Atlantic City.

Von Sacher-Masoch, L. (1870) *Venus im Pelz. Das Vermächtniß Kains. Erster Theil. Die Liebe. Zweiter Band*. Cotta, Stuttgart.

WEBGUNEAK

Castaño Recuerdo, G. (2020). *La historia secreta del masoquismo*. Psicoactiva. Hemendik eskuratua: <https://www.psicoactiva.com/blog/la-historia-secreta-masoquismo/>

Fernández, M.A. (2010). *Historia del teatro*. Hemendik eskuratua: http://www.islabahia.com/arenaycal/2010/173_julio_agosto/miguel_a_fernandez173.asp

Garazi (2013). *Itzultzaileak mintzo: Julia Marin*. Hemendik eskuratua: <http://elearazi.eizie.eus/2013/02/04/itzultzaileak-mintzo-julia-marin/>

García Barrientos, J.L (2012). *¿Qué representa el teatro en el siglo XXI?* Cuadrivio. Hemendik eskuratua: <https://cuadrivio.net/2012/04/que-representa-el-teatro-en-el-siglo-xxi/>

Historia del teatro. Editorial Etecé. Hemendik eskuratua: <https://concepto.de/historia-del-teatro/>

How American Theatre Has Prevailed Through History. (2018). Arcadia Publishing. Hemendik eskuratua: <https://www.arcadiapublishing.com/navigation/community/arcadia-and-thp-blog/july-2018/how-american-theatre-has-prevailed-through-history>

Ives, D. (2010). *Venus in Fur*. Estatu Batuak. Hemendik eskuratua : <http://docplayer.net/12609236-Venus-in-fur-a-play-by-david-ives.html>

La Venus de las pieles. Fundación Lopéz Quintás. Madrid. Hemendik eskuratua: <https://www.fundacionlopezquintas.org/actividades/cine-y-valores/65-la-venus-de-las-pieles>

Muñoz, F. (2010). *Teatro del siglo XX: realistas norteamericanos*. Artes Escénicas. Hemendik eskuratua: <https://arteescenicas.wordpress.com/2010/04/26/teatro-del-siglo-xx-realistas-norteamericanos/>

Piñero, M. (2018). *Panorama del teatro español contemporáneo: la revalorización del autor*. Crítica aldizkaria. Hemendik eskuratua: <https://www.revista-critica.es/2018/11/02/panorama-del-teatro-espanol-contemporaneo-la-revalorizacion-del-autor/>

Sánchez Ledesma, M. (2016). *La venus de las pieles*. Europa Sur. Hemendik eskuratua: https://www.europasur.es/ocio/venus-pieles_0_1005200092.html

Sousa Villafaina, T (2019) *¡Se abre el telón! Traducción y teatro*. Tatutrad. Buenos Aires. Hemendik eskuratua: <https://tatutrad.net/se-abre-el-telon-traduccion-y-teatro/>

Teatro. Editorial Etecé. Hemendik eskuratua: <https://concepto.de/teatro/>

Teatro en Estados Unidos. Blog EEUU. Hemendik eskuratua: <https://blog-eeuu.com/teatro-en-estados-unidos>

HIZTEGIAK

Gazte hizkera. Urtxintxa. Hemendik eskuratua: <https://www.urtxintxa.eus/jolasguneak/gazte-hizkera/>

Hiztegia. Gazte gara gazte. Hemendik eskuratua: <https://gazteak.ahotsak.eus/gazte-hiztegia/>

Elizen arteko Biblia (1994). Idatz. Hemendik eskuratua: <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/U/UriarteBibliaII006.htm>

BESTELAKO EDUKIAK: ELKARRIZKETAK, BIDEOAK, ALBISTEAK ETA ABAR.

Alejandro Lapeñari egindako elkarrizketa. Trágora Formación. Hemendik eskuratua: <https://youtu.be/JRMpAtTIDy4>

ekoizleek egindako emanaldi kopurua, ekoizlearen tipologiaren eta emanaldiaren lekuaren arabera. (2018) Euskadi.eus. Hemendik eskuratua: <https://www.euskadi.eus/estadistika/productores/actividad/numero-de-representaciones->

[realizadas-por-los-agentes-productores-por-tipologia-de-agente-y-lugar-de-representacion/web01-ejeduki/eu/](#)

Euskarak balio al du iraintzeko? (2015) Joseba Aurkenerani egindako elkarrizketa. Hemendik eskuratua: <https://www.ikasbil.eus/eu/dokutekako-fitxa?articleId=16267875>

Felipe Moralesek Federico García Lorcarri egindako elkarrizketa. La Voz (07-04-1936). Madrid. Hemendik eskuratua: <https://monicatello.es/al-habla-con-federico-garcia-lorca-entrevista-de-felipe-morales-que-es-la-poesia>

Txosten Estatistikoa 2007-2009. Euskadiko Antzoki Sarea. Bilbo. Hemendik eskuratua: https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/est1_1010/es_est1/adjuntos/Txosten_Estatistikoa_2007-2009-3-SAREA.pdf

Serrano, D. (2014). *La Venus de las pieles*.

Polanski, R. (2013). *La Venus à la fourrure*. R.P. Productions.

8. Eranskina

[Trumoi baten danbadak eta tximista baten eztrandak Tomas erakusten dute alokatutako estudio huts batean. Arratsalde amaiera da. Metalezko aulki zahar batzuk. Mahai bat pintzadun foku eta hautagaien argazki mordo batekin. Atrezzoko diban higatu bat. Mahaitxo bat kafe-makina eta paperezko zenbait edalontzirekin. Gelaren erdian, sabairaino iristen den burdinazko hodi bat. Fusible-kaxa bat horman zintzilik].

TOMAS [*harat-honat, mugikorrarekin*]: Ez. Ez. Ezer ere ez. Inor ez. Haserretzekoa da, konspirazioa. Ez dago halako emakumerik. Ez gazterik, ezta ez hain gazterik ere. Ez dago emakume eder-barra-sexyrik. Ez dago gazte eta sexy-barra-elokuenterik, heziketa seriokoa eta garun pixka batekin garezurrean. Asko eskatzea da? Logopedarik gabe «umiliazio» ahoskatu dezakeen aktore bat?

[*Trumoi baten burrunba*].

Laztana... laztana, liburuan Vandak 24 ditu, Jainkoarren! Garai hartan 24 urteko emakume bat ezkondu eta egongo litzateke. Bost haur eta tuberkulosiarekin. Benetako emakumea. Orain 24 urtekoek helioa arnastu duten sei urtekoak ematen dute. «*Eta esan nion ez dakit zer, eta hark badakit zer, eta nik ez dakit zer, eta hark badakit zer*». Nik ere ez dakit, deus ez, baina gaur hogeita hamabost aktore ezgai ikusi ditudala, hori badakit, eta oraindik erretiroa hartu nahi ez dutenek ere ez daukate behar den talentua. Eta benetan daukatenak telesailak filmatzen ari dira, edota ez dute papera egin nahi asteko bost zentimoren truke. Eta gero batzuen ergelkeria maila. Atrezzoak ekartzen dute, poltsak jantziz gainezka. Eta zer gertatu zaio feminitateari? Ekar ezazue horixe bera, arren. Gaur egungo gazteek ezin dute emakume-jarrera izan. Erdiek urdangak dirudite, beste erdiek mari-mutilak. Ni neu izango nintzateke neska horiek baino Vanda hobeagoa, egin beharreko bakarra soineko bat eta pantiak jantzea litzateke. *Aber*, gure Vandak hor nonbait egon behar du, baina momentuz...

[*Trumoi eta tximista. Gelako argiek ñir-ñir egiten dute*].

Kaixo? Kaixo? Laztana? Laztana, hor zaude?

VANDA [*offstage*]: Kax kax!

[*Vanda sartzen da, takoi altuekin eta zira busti batekin jantzita. Poltsa erraldoi bat, zorro bat eta euritako beltz urratu bat daramatza*].

VANDA: Berandu nabil? Bai, ezta? Kaka putza!

TOMAS: *Larruetako Venusa antzezlanerako etorri bazara, etxera joan dira denak duela*

ordu erdi.

VANDA: Ai ene, barkatu, bene-benetan, trafikoak harrapatu nau hiriko beste puntan, eta mugikorra itzali zait. Gero takoi puta hau trabatu zait estolda-zulo edo horietako batean. Gero treneko gizon hura, ez dut gogoratu gura ere, zakila ipurdiaren kontra igurzten neukan bidaia osoan. Gero zaparrada bota du. Ura arropa barrura eta guzti sartu zait. Kaka putza!

[*Salto batez esertzen da aulki batean.*]

Zorte onekoa naiz, e? Zortea...KAKA!

TOMAS: Botikarik ekartzea nahi?

VANDA: Ez, ondo nago. Nire betiko zortea da, besterik ez. Eskerrik asko berriro ere, Jesukristo. Ai, barkatu. Vanda Jordan dut izena.

TOMAS: Vanda...?

VANDA: Ikusten? Izen bera daukagu *inkluso!* Herri honetan zenbat neskek dute *Vanda* izena? Wanda naiz berez, baina gurasoek Vanda jarri zidaten. Beno, gatozen harira: perfektua naizela papererako eta tren puta hori tunel batean gelditu dela kanpai-jole hark ipurditik sartu nahian zebilkidanean. Patua-edo izango da. Eta zu nor zara?

TOMAS: Tomas Novachek.

VANDA: Urte askotarako.... E, itxaron. Tomas Novachek? Zeuk idatzi duzu hau!

TOMAS: Bai, hala da. Beno, egokitu dut.

VANDA: Eta zuzendaria ere zara, ezta?

TOMAS: Elkarrizketa hauek azken aldiz arnastu arte.

VANDA: Uf, piloa gustatzen zaizkit zure lanak! Ezagutzen ditudanak, *sikiera. Itzalen Anatomia? Ze pasada.* Mundiala izan zen! Birritan ikusi dut!

TOMAS: Ez dut *Itzalen Anatomia* idatzi.

VANDA: Egia, bai. Bestea esan gura nuen. Ai ama, ze *pepelerda.* Baina beno, hau bai dela mundiala. Irakurrita dauzkadan zatiak, behintzat. Kristoren *mobida.*

[*Berokia kendu eta tatxetez apaindutako txarolezko top-a, larru beltzezko minigona eta zilarrezko tatxetedun txakur lepoko bat erakusten du.*]

Tope sexya, ez? Edo erotikoa, aizu, umiliazioa gustatuz gero. A, bide batez, normalean ez naiz larruzko lentzeriarekin eta txakur lepoko batekin ibiltzen. Dezente apal-edo joaten naiz. Paperean sartzeko baino ez da. Ze, berez, antzezlan hau *sadomasoka* da, ezta?

TOMAS: Ez hain zuzen. Eta 1870an girotuta dago.

VANDA: Mmm. Eta honek ez du 1870koa ematen, *klaro*.

TOMAS : Ez.

VANDA: Batek daki, agian sadomasokistak honela janzten ziren garai hartan

[Argazki urratu eta zapaldu bat ateratzen du zorrotik].

Begira, nire argazki bat ekarri dizut. Badakit nire curriculuma kaskarra dela, baina ona naiz. *En plan* paper honetarako jaio nintzen, zin dagizut. Hedda Gablerena bikain egin nuen.

TOMAS *[curriculumua irakurtzen]*: Pixalekuko Teatroa. Ez ditut haien antzezlanak ikusi azkenaldian... Baina, hitzordua zenuen?

VANDA: *Baip*, ordu biak eta laurdenetan. Duela ordu bat, ezta? Bo! Hobe berandu ez dakit noiz baino.

TOMAS *[eguneko hitzorduen orriak begiratzen ditu]*: Vanda...?

VANDA: ... Jordan. Jendeak beti diost: benetakoa da? «Vanda Jordan»?

TOMAS: Ez dut zure izena ikusten.

VANDA: Ez, ala? Nire agenteak dena konponduta zegoela esan zidan. Ez naiz agertzen? Ordu biak eta laurden. *Joder*. Milesker, Jesukristo, beste behin! Beno, hemen nagoenez...

[Topa erantzi eta bularretako txundigarri bat erakusten du].

Jokatzera etorri gara!

TOMAS: Itxaron, itxaron. Zertan ari zara?

VANDA *[larruzko gona kentzen duelarik, panti eta galtzari beltzak erakusten ditu]*: Jantzi batzuk ekarri ditut.

TOMAS: Vanda, ez...

VANDA: Segundo bat da, benetan. Soineko eder hau aurkitu dut. Material onekoa.

TOMAS : Ez arduratu, ez duzu zertan...

VANDA: Zer? Ez dugu irakurriko?

TOMAS: Ez, ez dugu egingo.

VANDA : *Ya*, baina hemen nago, zergatik ezin dut proba txikitxo bat egin?

TOMAS: Ez dago norekin egin proba. Irakurlea etxera joan da.

VANDA: Ba zurekin irakurriko dut. Ohore handia da benetako idazlearekin irakurtzea.

TOMAS: Egokitzailerekin.

VANDA: Ba hori, mirestekoa izango litzateke egokitzailereangandik zuzenean ikastea. Tira, zer kostatzen zaizu? Ni prest nago...

TOMAS: Geldi. Geldi. Egia esateko, zera, e...

VANDA: Vanda.

TOMAS: Bestelako norbaiten bila gabiltza.

VANDA: A, bai? Noren bila?

TOMAS: Ba... norbait pixka bat... zera... nola azaldu...

VANDA: Ni bezalakoa ez den norbait. Gazteegia naiz. Zaharregia. Handiegia, txikiegia. Nire curriculumua ez da aski luzea. Konforme.

[Burua makurtu eta negarrez hasten da].

Konforme. Uf, barkatu. Barkatu. Egun latza izan da gaurkoa. Baina nola dakizu nor naizen edo zer egin dezakedan? A ze kaka!

TOMAS: Proba gehiago antolatuko ditugu laster...

VANDA: *Ya*, baina ni hemen nago. Ezta? Ezin didazu aukera bat eman, zuk biharkoa edo dena delakoa aurrezteko? Eta niri ere *kasakristotik* honaino etortzeko behar dudan denbora aurrezteko?

TOMAS: Begira, Vanda, oso egun luzea izan da. Nekatuta nago. Leher eginda, egia esaten badizut. Gainera, marjinatuen giza panoplia batekin ere egin dut proba paper honetarako, burdinazko hortzak zituen neska batekin barne. Hobe ez bazara saiatu ere egiten oraintxe.

VANDA *[gona janzten berriz]*: *Bale*. Bai. Ondo.

TOMAS: Ordu hauetan beti egoten naiz memelotuta, hala ere.

VANDA: *Bale*.

TOMAS: Eta nire zain daude afaltzeko.

VANDA *[zira janzten]*: Benetan. Ulertzen dizut.

TOMAS: Hobeto irtengo da fresko nagoenean. Eskerrik asko etortzeagatik, nolnahi ere. Zorionak jantziagatik. Liluragarria. Eta berriz ikusi arte.

VANDA [*atera zuzenean doa gauzekin, baina une batez gelditzen da*].

VANDA: Beno, ez dut uste. Eskerrik asko esateagatik, halere. Tipo oso jatorra ematen duzu. Baina negozioa da, ondo dakizu zuk. Negozio ziztrin eta madarikatu hau. Eta gainera, hamar dolar gastatu behar izan ditut *vintage* arropa-dendan soineko puta honetarako.

[*Soineko luze, zuri eta dotore bat ateratzen du poltsa handitik*].

Baietz hau mila zortziehun eta ez dakit zenbatekoa dela?

TOMAS: Oso 1870 eta ez dakit zenbatekoa.

VANDA Ez zaizu Vanda iruditzen, bete-betean? Kristoren soineko luzea jantziko lukeela imajinatzen nuen, denek gorroto zutelako beren gorputza garai hartan.

TOMAS: Egia esan, hemeretzigarren mendearekiko ideia oker oso arrunta da hori.

VANDA: Eta behintzat erakutsi ahal dizut nola ematen didan? *Mese, mese*, mesedez eta faborez?

[*Tomasi telefonoz deitzen diote*].

TOMAS: Barkatu.

VANDA: Primeran!

[*Berehala erantzten da, jantzia jartzeko*]

TOMAS: Ez, itxaron, Vanda...

[*Telefonoz*].

Aupa, laztana. Bai, moztu egin da, ekaitzaren erruz.

[*Vandari geldirik egoteko eskatzen dio, eskua astinduz*]

Ez! Ez!

[*Vandak janzten jarraitzen du. Telefonoz*]

Ez, zu ez, norbait sartu da. Mmm. Ez, ez dut uste. Entzuidazu, minutu pare bat barru irtengo naiz. Zerbait erosiko dut bidean. Ez, liburua lortu dut. Nik ere maite zaitut. *Ciao*.

VANDA: Kremlera igo ahal didazu?

[*Tomasek kremlera igotzen dio*].

Bua. Tomas Novachekekin irakurtzea... sinestezina!

TOMAS: Baina aizu, ni ez naiz aktorea, beraz, ez dizut batere mesederik egingo

Paper honek benetako aktore bat behar du.

VANDA: Hara bestea! Perfektua zara. Kowalski zara.

TOMAS: Kushemski.

VANDA: Kushemski. Horixe bera zara zu.

TOMAS: Ez erabat.

VANDA [TOMAS damutzen hasi delarik]: Eskerrik asko, jauna. Nondik hasiko gara, orduan? Prest nago, pronto.

TOMAS: Lehen eszena egin dezakegu. Badituzu orriak?

VANDA [poltsa handia miatu eta gidoi zarpatsu bat ateratzen du]: Jakina! Apurtxo bat puskatu dira honako bidean.

TOMAS: Baina gidoi osoa da hori. Nola lortu duzu?

VANDA: Ez dakit. Agenteak bidali dit.

TOMAS: Nola lortu du zure agenteak?

VANDA: Ez nuke izan beharko, ala? Zer da, ba, *top secret* edo horrelako zerbait?

TOMAS: Ez du axola. Irakurri egin duzu?

VANDA: Apur bat gainetik trenean nengoela. Eta zer kontatzen didazu honi buruz? Zerbaitetan dago oinarrituta, ezta? Lou Reed abeslariaren kantatik aparte? *Venus in Furs*?

TOMAS: *Venus in Fur* –singularrean– izeneko eleberri alemaniar zahar batean dago oinarrituta, eta Leopold von Sacher-Masoch da egilea.

VANDA: Seguru badakizula alemanez. Eta jatorrizkoa irakurrita daukazula.

TOMAS: Hala da, bai. Eta horren ezjakinean bazaude, liburuak iskanbila handia eragin zuen 1870ean.

VANDA: Ideia bat egin dezaket. Porno *sadomasoa* da eta.

TOMAS: Ez da porno sadomasokista.

VANDA: Ez zaizu pornoa iruditzen? Ezta apur bat ere? Erdi Arorako, mila zortziehun eta ez dakit zenbatgarren urterako?

TOMAS: Larruetako Venusa amodiozko istorio eder bat da. Eleberri serio bat. Literatura unibertsaleko testu garrantzitsuenetako bat.

VANDA. A. Antzezlanira irakurrita pentsatu nuen pornoa izango zela. Dena den, ez didazu

zertan azaldu sadomasokismoa. Antzerki-munduan ari naiz eta.

TOMAS: «Masokismo» hitza Leopold von Sacher-Masochetik dator, bere liburuagatik.

VANDA: «Masokismo», «Masoch». *Aiba!* Nola ez naiz konturatu? Orduan *sadomaso* berbak tipo honetan du jatorria! Ze ona!

TOMAS: Ez nago ziur hori izan ote zen Sacher-Masochek zuena buruan.

VANDA: Seguru pentsatu zuela eleberri serio bat idazten zegoela, eta gainerakoek, aldiz, pornoa zela. Orduan zera... non... zera... gaude, zera?

TOMAS: «Zeran» gaude, Karpatoetako ostatu urruti batean, Austria-Hungariako Inperioko ekialde-ekialdean.

VANDA: Austria-Hungariako Inperioa... Beste pistarik?

TOMAS: Beno, konplexua da.

VANDA: Baina lekua ederra da, ezta?

TOMAS: Aberatsentzako bainuetxe bat da. Paregabea. Argiak pizten direnean, Kushemski bere logelan ari da irakurtzen gosariko kafearekin. Eta kax-kax-kax, Vanda sartzen da.

VANDA: Eta hori sinbolikoa da pertsonaiarentzat? Hau da, irakurtzea?

TOMAS: Jakingo duzunez, badago irakurtzen duen jendea, gaur egun ere. Batzuetan paperez egindako orriak.

VANDA: Ai. Ba ez nekien. Mmm...Nola da: «Séverin» edo «Sevérin»?

TOMAS: Sévérin.

VANDA: Sévérin. Eta Kushemski zer da. Bota itzazu, zera, adjektibo batzuk.

TOMAS: Bere garaiko aberatsik nagienetakoa. Kosmopolita. Buru-jantzia. Eskolatua. Argia.

VANDA: Hori bere ustetan.

TOMAS: Hala baderitzozu.

VANDA: Hala baderitzozu. Bai polita esamoldea! Noiz izango zen entzun nuen azken aldia? Dena dela: mutil *xika* da, ikusten dudanez. Zure antzera.

TOMAS: Ez duzu andreari buruz ezer jakin nahi?

VANDA: Beno, nik uste dut nahiko ondo ulertzen dudala. Baina gura baduzu, aurrera.

TOMAS: Esango nuke Vanda bere garaiko neska arrunt bat zela, berak zituen printzipio agerikoak gorabehera.

VANDA: Gorabehera zer?

TOMAS: Bere printzipio agerikoak. Itxuraz aski fina zen. Seguruenik nahiko lasaia. Eta buru-jantzia ere.

VANDA: Hori guztia argi eta garbi ikusten da orrialdeetan. Besterik? Badaukazu berari buruzko informaziorik? Ez dakidan zerbait? Ez du inporta, ikertuko dut nik. Eta suposatzen dut hau dela diban delako hori.

[Burdinazko hodia].

Txo, eta hau? Maiatzeko arbola? Sinbolo falikoa?

TOMAS: Berotze-sistema bateko hondarrak, eraikin hau lantegi klandestinoaren zenekoa.

VANDA: O, egon. Egon apur batean.

TOMAS: Zer da?

VANDA *[poltsa handia miatzen]*. Nire larrua. Larruzko estola bat darama sartzerakoan, ezta?

TOMAS: Hala da.

VANDA *[bigarren eskuko xala ateratzen du eta soinean jartzen]*: Ederto batean. Larrua. Leuna. Oso leuna... Non nago, orduan? Non gura nauzu?

TOMAS: Eroso zauden tokian.

VANDA: Ez, zuk esan.

TOMAS: Jar zaitez han.

[Hala egiten du].

Ezkerretarago. Ez! Ezkerra.

VADA: A, antzezlekuko ezkerra.

TOMAS: Besterik badago, ala?

VANDA: Barkatu.

TOMAS: Begiratu bat eman nahi eszenari?

VANDA: Keba, goazen zuzenean egitera. Noraino egingo dugu?

TOMAS: Hirugarren orrialdearen bukaeraraino.

VANDA: Hori bakarrik? Gero kaleratu egingo nauzu, baietz?

TOMAS: Egin dezagun proba lehenik, gero gerokoak.

VANDA: Bestela esanda, bai. A, eta azken galdera. Eszena hasi aurreko hitz hauek? Aipu hau?

TOMAS: Epigrafea.

VANDA: Hori. «Emakume baten eskuz jo eta hil du Jaunak». Zer da?

TOMAS: Pare bat aldiz agertzen da eleberrian. Judithen Liburutik aterata dago.

VANDA: Biblia da hori?

TOMAS: Bai, Judithen Liburua Bibliako Apokrifetan dago.

VANDA: Sentitzen dut, ez da nire esparrua. Baina, hala eta guztiz ere, ez zaizu sexista iruditzen? «Emakume baten eskuz jo eta hil du Jaunak»?

TOMAS: Sacher-Masochen liburuko aipu bat hartu baino ez dut egin.

VANDA: Bai, baina lehen-lehenengo orrialdean sartu duzu, lanaren jomuga izango balitz bezala. Ba! Berdin dio. Niri bost. Aktore bat baino ez naiz. Argi gehiegi dago hemen. Inporta dizu aldatzen badituz? Gorroto dituz fluoreszenteak.

[Trumoi baten burrunba].

TOMAS: Ez, lasai. Etxean bazeunde bezala.

[Vandak fluoreszentea itzali, fusible-kaxara joan eta argiak aldatzen ditu].

Ez nekien sistema oso bat zegoela hor goian.

VANDA: *Listo*. Dramatikoago. A, aizu, azken galdera. Mila zortziehun eta piko da, uste duzu Vandak garaiko aberatsen azentu faltsua zeukala? Berdin dio. Konponduko naiz.

[Gorputza astintzen du, ahotsaren ariketak egiten dituelarik].

TAAA! TA-TA! TA-TA! BAT. BI. BAT! BI! *Listo*, prest nago. Eman buelta. Ea ba, emateko buelta. Irakurtzen eta kafea edaten zaude, ez nauzu ikusten.

[Tomasek bizkarra ematen dio].

Konforme. Goizez, Transilvanian. Goizez, Transilvanian.

TOMAS: Nahi duzunean.

VANDA: Kax-kax.

TOMAS/KUSHEMSKI: *Aurrera.*

VANDA/DUNAYEV [*azentu perfektu, akasgabe batekin*]: *Herr Doktor Severin von Kushemski?*

[*Tomasek bira eman eta «Dunayev ikusten du»*].

Vanda von Dunayev nauzu. Zurearen gaineko gelan egiten dut lo. Barkatu eragozpenak, baina bart liburu hau aurkitu nuen urkidian.

[*Gidoiari heltzen dio*].

Faustoren kopia bat, zure ex librisarekin barruan. Iturrian zegoen, Venusen estatuaren parean.

TOMAS/KUSHEMSKI: *Eskerrik asko, neskameari galdetu berri diot horren inguruan.*

VANDA/DUNAYEV: *Berari ematekotan izan naiz, baina orri-markatzaile arras probokatzaile hau ere aurkitu dut barruan...*

[*«Postal» bat hartzen du «liburutik»*].

Rafael bat al da ?

TOMAS/KUSHEMSKI: *Tiziano bat. «Venus Ispiluarekin». Nire margolanik gogokoena.*

VANDA/DUNAYEV: *Bada, zure Venusa Faustoa bezain usatua dago. Leiala al zaio?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Barkatu?*

VANDA/DUNAYEV: *Jatorrizkoari.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Nire aburuz, emakume hori Venus da. Margolanaren kopia leiala, hori bada esan nahi duzuna.*

VANDA/DUNAYEV: *Ezbairik gabe uler dezaket zure lilura. Luxuzko belus gorri hori. Gorputz biluzia nabarmentzen duen larru ilun hori. Eskuak bilurtzen dizkion eskumuturreko horiek. Urrezko bular horiek. Pintura xarmagarria da, baina... Venus bere burua estaltzen ari al da larruarekin, ala larrua erantzten loriak erakusteko?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Ez dugu sekula jakingo. Biak, beharbada. Hala ere, eskerrik asko bueltan emateagatik.*

VANDA/DUNAYEV: *Horrez gain, ezin nion atzealdean zirriborratutako poema misterioitsu hau begiratzeari utzi. «Larruetako Venusari». Zuk idatzi al duzu?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Erdipurdiko poesia baino ez da.*

VANDA/DUNAYEV: *Erdipurdikoa? Zuk uste...?*

*«Maitatzea eta maitatua izatea, o, hau poztasuna!
Eta oraino alaitasun biziago batek distira:
Emakume horren musu tormentuduna
Haren esklabo, oinazpiko, jostailu gaituena,
kale-txakur zital uzten nauena,
nire jainkosa, diktadorea, larruetako Venus polita...»*

Sentimendu interesgarriak. Zu banintz, orri-markatzailea ondo gordeko nuke.

TOMAS/KUSHEMSKI: *Eskertzekoa da zure diskrezioa.*

VANDA/DUNAYEV: *Hona hemen zure Faustoa eta Venusa, onik daude biak. Eta begira. Berriz zaude osorik.*

[Etena].

Benoa...

TOMAS/KUSHEMSKI: *Eseri nahi duzu, Frau Dunayev?*

VANDA/DUNAYEV: *Eskerrik asko.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Larrua erretira diezazuket?*

VANDA/DUNAYEV: *Zeinen adeitsua zaren.*

[Xala erantzten dio].

TOMAS/KUSHEMSKI: *Tartariarra da, ezta? Kaukasoar lepahoria. Kazakhstangoa, segur aski.*

VANDA/DUNAYEV: *Kazakhstango kaukasiar lepahoria, bai horixe. — Kushemskik eskuetan duen larruari begiratzen dio.*

[Xalari begira diezaion itxaroten du].

Dardarka zaude, Herr Kushemski!

TOMAS/KUSHEMSKI: *Barkatu. Zerbait ekartzea nahi?*

VANDA/DUNAYEV: *Kafe bat zoragarri egongo litzateke.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Hartu ezazu nirea.*

VANDA/DUNAYEV *[eskularruak kentzeko keinua]: Ederki. Bi azukretxorekin, eskerrik asko.*

TOMAS *[keinuk egiten, didaskalia irakurtzen duen bitartean]: Kafea zerbitzatzen dio.*

VANDA/DUNAYEV: *Espero dut ez gogaitu izana, goiko solairuan takoiekin ibiltzeagatik.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Inola ere ez. Ibil zaitez takoiekin nahi duzun adina indarrez.*

VANDA/DUNAYEV: *Poeta zara hortaz, Herr Kushemski. Ameslaria.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Diletantea, asko jota. Bizitzan zehar mihise franko luzatu ditut, baina ez dut bat ere margotu. Esan daiteke margotzen eta poesia idazten dudan erara bizi naizela. Amateur gisa.*

VANDA/DUNAYEV: *Larruekiko duzun ezagutzak amateur batengandik haratago doala dirudi. Nire estola intimoki identifikatu duzu, aurretik inoiz ikusi izan gabe.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Larruekiko maitasuna jaiotzatikoa da. – Saltatu egingo dut hau.*

VANDA: *Bai zera! Irakurri, irakurri.*

TOMAS/KUSHEMSKI *[modu mekanikoan eta bizkor irakurtzen]: Larruekiko maitasuna jaiotzatikoa da. Naturak denoi emandako pasio bat.*

VANDA: *Tira, egizu gogotsuago*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Larruekiko maitasuna jaiotzatikoa da. Naturak denoi emandako pasio bat da. Nork ez du ezagutzen larru leun, lodi bat laztantzearen adikzioa? Kilima berezi hori. Elektrizitate hori. Zer da katu bat, atzapardun bateria galbaniko ibiltari bat baino?*

VANDA/DUNAYEV: *Guztiz ados. Hala ere, laurrekiko maitasun horretarako Errenazimentuko estetikarena baino arrazoi handiago bat dagoen susmoa dut. Agian zure amak lepahori larru-azalean troxatzen zintuen umetan. O, barkaidazu, muturra sartzen ari naiz.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Egia esan, izeba larru zale bat izan nuen...*

VANDA/DUNAYEV: *Horra zergatia. Gauza franko azaltzen du.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Geure burua aise azaltzeko gai gara denok. Ez, ordea, aise askatzeko.*

VANDA/DUNAYEV: *Zerengandik askatzeko?*

[Etena]

Hirugarren orrialdeko bukaera da hori.

[Trumoi berrunba]

TOMAS: Egia, bai. Aizu, ondo egin duzu, Vanda.

VANDA: Baldar sentitu naiz, paperean sartzeko ahaleginetan.

TOMAS: Ez zirudien hala zenbiltzanik.

VANDA [*AEBko hegoaldeko azentu geldoaz*]: Ba begira zein ondo antzezten dudan! Esan dizut, profesionala naiz.

TOMAS: Oso ongi egin duzu.

VANDA: Ai, *jope*. Gorritu egingo naiz.

TOMAS: Ez dut esan perfektua denik.

VANDA: Ez noski.

TOMAS: Irakur dezagun beste pixka batez. Kushemskiren hizketa dator orain. Hobe salto egiten badugu...

VANDA: Ez, irakurri ezazu. Inporta dizu? Ni motibatzeke batez ere. Aktore ona zara, Tomas.

TOMAS: Itxurak egiten ari nintzen.

VANDA: Ez, super ona zara. Badaukazu Kushemski antzeztuko duen morroirik?

TOMAS: Oraindik ez. Aukera gutxi ditugu.

VANDA: Zuk egin beharko zenuke.

TOMAS: Ados.

VANDA: Baina benetan. Upa lakoa izango litzateke.

TOMAS: Zaila da. Ezin dut sinetsi aktoreak hau egitera behartzen ditudala.

VANDA: Antzerkigilea zara. Zuzendaria. Zure lana da aktoreak torturatzea.

TOMAS: Zuzendari hasi berria, gainera.

VANDA: Nork esango!

TOMAS: Zuzendari batek ere gauzak ongi egiten ez dakizkielako ari naiz honetan. Eta gaizki zuzendutako produkzio askotan egon naizela kontuan hartuta...

VANDA: Horregatik zara hain perfektua. Aurrera atera dezakezu. Zuzentzeko gauza zara.

TOMAS: Den-dena dut prest, gainera. Alban Bergen *Lyric Suite* erabiliko dut trantsiziorako musika gisa.

VANDA: *Aiba!* Ze ondo.

TOMAS: Ezagutzen duzu *Lyric Suite*?

VANDA: Ez, baina, ikusten? Inork baino hobeto ulertzen duzu hau guztia barne-barnetik, baita pertsonaiak ere. Hori bai, Kushemskirentzat, ez dakit, azenturen bat edo zerbait saiatu beharko zenuke.

TOMAS: Aristokratago-edo izatea.

VANDA: Aristokratagoa, hori da.

TOMAS [*«aristokrata»*]: Zerbait aristokrata. Hau aristokrata da, ala astakirtenarena egitea?

VANDA: Horrelaxe! Apur bat astakirtenarena, baina arazorik ez.

TOMAS: Ez didazu lebitarik ekarri, ezta?

VANDA: Ba bai! Probatu gura duzu?

TOMAS: Txantxetan nenbilan.

VANDA: Ez, tira, probatu. Lagunduko dizut.

[*Lebita beltz bat ateratzen du poltsatik*].

Eutsi, ikusi zure neurrikoa ote den.

TOMAS: Zein polita. Benetakoa da?

VANDA: Esan zidaten *vintage* dela.

TOMAS [*etiketa begiratzen du*]: «Siegfried Mueller, Viena, 1869»?

VANDA: Ui, ez naiz konturatu ere egin. Hiru dolar. Ez dago batere txarto!

[*Zabaldu egiten dio berokia Tomasi, eta besteak jantzi egiten du*].

Ene! Zuretzat eginda dagoela ematen du. Zer moduz?

TOMAS: Eroso dut. Neurri perfektua da.

VANDA: Ederto ematen dizu, bai. A ze mutil-katxarroa!

TOMAS: Eta zenbat kostatu zaizu txakur lepokoa?

VANDA: Hau? Ba... prostituta nintzenekoa da.

[Etena].

Broma da! Bromatxoa! Beno, errepikatu egingo dizut esaldia - *Erabat ados. Hala ere, laurrekiko maitasun horren atzean Errenazimentuko estetikatik haratago doan arrazoi bat dagoen susmoa dut. Agian zure amak lepahori larru-azalean troxatzen zintuen umetan. Barkaidazu, muturra sartzen ari naiz.*

TOMAS: *Egia esan...*

VANDA: Gogorra egin behar zaio hau, ezta?

TOMAS: Hala izan beharko luke.

VANDA: Ba igarri dadila hori. — *Barkaidazu, muturra sartzen ari naiz.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Egia esan, izeba larru zale bat izan nuen...*

VANDA/DUNAYEV: *Horra zergatia. Gauza franko azaltzen du.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Geure burua aise azaltzeko gai gara denok. Ez, ordea, aise askatzeko.*

VANDA/DUNAYEV: *Zerengandik askatzeko?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Gu garen horrengandik. Munduak egin gaituen horrengandik. Eta konpontzen gaituen horrek une bat besterik ez du behar hala egiteko. «Sorgin-orratz baten hegoen iraultzea», Greziarren bat aipatzekotan. Ezusteko xalo bat eta desberdina zara, betirako... Zer moduz kafea?*

VANDA/DUNAYEV: *Ez dut ia dastatu, baina zoragarri dago oraingoz – Eta hori sinbolikoa da, baietz? Hau da, kafea Kushemski da. Zurrut bat baino ez du hartu emakumeak, osorik edateko irrikan dago.*

TOMAS: *Joe. Pentsamendua irakurri didazu.*

VANDA/DUNAYEV: *«Ezusteko xalorik» izan al duzu, Herr Kushemski?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Egia esan, bai, txiki-txikitan. Baina ez da zure interesekoa izango.*

VANDA/DUNAYEV: *Bada, txundituta nago. Misteriozko istorio ingeles horietako bat dirudi. Izeba larru zale eta misteriozkoa ezagutzeko gogo biziz nago.*

TOMAS: *Berbaldi hau guztia saltatu dezaket.*

VANDA: *Ez, irakurri, entzun gura dut. - Izeba larru zale eta misteriozkoa ezagutzeko gogo biziz nago.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Ume gogaikarria nintzen. Mukizua eta gurasoek mimatua. Hautzaro osoa pasatu nuen liburutegian irakurtzen eta zerbitzariak eta katua martirizatzen. Hamabi urte bete nituenean, izeba bat bisitan etorri zitzaigun. Kondesa berealdiko emakumea zen. Haragikoia, hantustea eta beldurgarria. Milaka eratan... uko egin zion...*

[Eten egiten da].

VANDA: Zer?

TOMAS: Ezer ez. Kontua da... sentsazioa desberdina dela, hitzak ahoskatzean. Ozenki. Ez da hitzak goizeko ordu bietan pantaila batean idaztea bezala.

VANDA: Baina ondo zoaz, oso ondo. Izeba bisitan etorri zaizue. Eta milaka eratan...zer?

TOMAS/KUSHEMSKI: *Berealdiko emakumea. Haragikoia, hantustea eta beldurgarria. Milaka eratan uko egin zion nire aldarteak jasateari, eta begitan nuen haren erdeinu handientsuagatik. Zakar zirikatu nuen, iraindu, Messalina deitu nion. Horrek eraginda, mendekatu egin zen. Behin nire gurasoak irten egin ziren, eta izeba laster batean etorri zen liburutegira. Azeri beltzaren larruzko kapa errusiar erraldoi bat zeraman. Buruan, diamantezko tiara bat. Eta eskuetan, urki berdearen adar fresko bat. Sukaldariak eta neskameak atzetik jarraitu zioten. Izebak larrua kendu eta mahukak igo zituen, beso muskulatuak dotoreziaz agerian uzten zituela. Ihes egiten saiatu nintzen, baina beste bi emakumeek besoetatik heldu, urduritu, larru gainera jaurti eta prakak jaitsi zizkidaten. Heroikoa izaten saiatu nintzen, baina eskuak eta oinak lotu zizkidaten izeba gainean esertzen zitzaidan bitartean, zartarekin. Urkiaren adarrak etengabe egiten zuen kask airean kolpeak jotzearekin batera. Sutan nituen hanken atzealdea eta ipurdi biluzia, azoteak kobrezko grabatu-xafla bat suntsitzen duen azidoa bezalakoak ziren, kolpe oro benetako artista batek emana balitz bezala. Bien bitartean, neskameak izeba animatzen eta niri burla egiten zidan. Neskatxo deitzen zidaten eta nire malkoei barre egin. Izebak ni astintzen jarraitzen zuen ni negar-malkotan nengoan artean, zotinka eta erruki eske. Amaitutakoan, belaunikatzera eta zigortzeagatik eskerrak ematera behartu ninduen. Jipoitu ninduen zartak musukatzera behartu ninduen. Berriz itzuliko zela mehatxatu eta gero, alde egin zuen. Hau guztia barrezka zebiltzan bi zerbitzariak eta nire katuak begietsita. Harrezkero, larru bat ezingo da larru soila izan, ezta urkiaren adar bat zarta inozentea. Une hartan, gela hartan, emakume hark gaur naizena bilakatu ninduen.*

VANDA/DUNAYEV: *Eta itzuli al zen?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Esan daiteke baietz. Ondorengo gau guztietan Kondesa-izebak bisitatu egiten ninduen ametsetan, azeri beltzaren larrua jantzita eta urkizko zarta bat aldean zigorrarekin jarraitzeko. Gauero bisititzen nau oraindik. Tirano preziatu bat.*

VANDA/DUNAYEV: *A ze gizon gaixoa.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Gaixoa? Hari esker, ezin naiz aberatsagoa izan, dakidan guztia jakinda, haren oinetan ikasia izanda.*

VANDA/DUNAYEV: *Eta zer da irakatsi zizun hori?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Ezin dela egon mina bezain gauza sentsualagorik eta umiliazioa bezain gauza atsegingarriagorik. Kondesa nire eredu bihurtu da. Emakume ideala, bikotekide ideala. Maitasunaren beraren jainkosa haragitua. Krudelkeria gozo berbereko emakume baten bila egon naiz ordutik. Eta emakume hori ezagutzen dudan egunean bertan ezkonduko naiz berarekin.*

VANDA: Tomas, sekulako diskurtsoa izan da hori.

TOMAS: Eskerrik asko. Nahiko denbora eman nuen lantzen.

VANDA: Orduan, berez, antzezlanak haurren tratu txarretan du oinarri.

TOMAS: Nola? Ez, antzezlanak ez du hori oinarri. Jaungoikoa! Hau da hau garaiotako ergelkeria, edozer bihurtzen duzue gizarte-arazo hutsal!

VANDA: Haurren tratu txarrak ez dira oso hutsalak.

TOMAS: Ez, ez da hutsala, baina hala zaude jokutzen. Ez gaitezen hutsalak izan, ados? Hau ez da antropologia, edota soziologia. Antzezlan bat baizik.

VANDA: *Ya*, baina...

TOMAS: Ez orokortu. «Gorputz-zigorraren inguruko arazoak» baino zerbait handiagoa ari da gertatzen hemen.

VANDA: *Okei*. Barkatu.

TOMAS: Bai kaikua eta txirotua gu bizi garen mundu hau! Zergatik gaude beti geure buruak gutxiesteko irrikan? Zergatik nahi ditugu geure buruak adibide batera murriztu? Freuden proba bat besterik izango ez bagina bezala, edota aste honetako aldizkarian agertzen den edozein psikologia baliogaberen froga bat. Zer aurpegiratuko didazu hurrengoan, arraza, klase eta genero kontuak?

VANDA: Hori dena idaztea eta *Times* egunkariari bidaltzea daukazu.

TOMAS: Eta egin nuen. Baina ez zuten kaleratu. Tira...

VANDA/DUNAYEV: *Xelebrea zara dudarik gabe, Herr Severin von Kushemski. Baina kontu handiz ibiliko nintzateke zure tokian. Zure eredu erdiesten duzunean laket zaizuna baino krudelagoa izan daiteke.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Arriskua hartzeko prest nago. Edonola ere, hori naiz ni. Horrek dakarren guztiarekin ere.*

VANDA/DUNAYEV: *Badakit zer zaren. Supersentsualista. Hedonista aszetikoa.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Eta zu, Frau Vanda von Dunayev, nor edo zer zara?*

VANDA/DUNAYEV: *Paganoa naiz. Greziarra. Antzinakoak gogoko ditut ez direlako beren munduetan bizi diren modernoak, eta gurutze batean bizi diren kristauen kontrakoak direlako. Ni ez naiz nire munduan bizi, ezta gurutze batean ere. Diban*

honetan baino. Soineko honetan. Galtzerdi eta oinetako hauetan. Helena eta Aspasia bizi ziren moduan bizi nahi dut, ez egungo emakume zitalak bezala, ez baitira ez zoriontsu ezta zoriontasuna emateko gai ere. Zergatik uko egin edozein plazer posibleri, zergatik utzi edozein esperientzia sexual izateari? Gaztea, aberatsa eta ederra naiz, eta etekina atera beharko nioke horri. Ez gogoari eutsi behar.

TOMAS/KUSHEMSKI: *Zure printzipioekiko debozioa errespetatzen dut, jakina.*

VANDA/DUNAYEV: *Ez dut zure errespetua behar, barkatu esatea. Plazera ematen didan gizona maitatuko dut, eta zoriontsu egiten nauen gizonari emango diot plazera, baina zoriontsu egiten baldin banau bakarrik, minutu bat gehiago ere ez.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Gizon batentzat, ez dago emakume baten desleialtasuna baino krudelagorik.*

VANDA/DUNAYEV: *Emakume batentzat, aldiz, bai: gizonen leialtasun behartua. — Mugi naiteke?*

TOMAS: Bai, aurrera.

VANDA/DUNAYEV: *Gure gizartean, emakumearen botere bakarra gizonen bitartez lortzen dena da. Haren izaera izaerarik eza da. Emakumea hutsune bat da, sakonean bera mespretxatzen duten piztiak bete beharrekoa. Ikusi nahiko nuke nolakoa izango den emakumea gizonen esklabo izateari uzten dionean. Gizonen parekoa denean bai hezkuntzan, baita lan-munduan. Bera bihurtzen denean. Pertsona aske bat. – Jesus, Vanda zaharra seriotan dago aurreratuta bere garairako, baietz?*

TOMAS: Bazegoen Leopold von Sacher-Masoch. Vanda, nola ikasi dituzu lerro horiek guztiak?

VANDA: Ez dakit ba. Nahiko arin ikasten dut.

TOMAS: Nahiko arin, gainera, gainetik begiraturaz trenean zeundela? Buruz zenekien!

VANDA: Baina aizu, lehen esan duzu Vanda fina zela, zeukan zerbait gorabehera, printzipio ez dakit zer.

TOMAS: Printzipio agerikoak.

VANDA: Hori. Orduan ez duzu uste Vandak hori dena sinisten duenik?

TOMAS: Baietz esaten du. Emakumearen eskubideak, txor-txor.

VANDA: Baina plantak-edo egiten ari dela uste duzu? *Gezurtera* bat dela? Ez dut aditzen zergatik esan duzun «printzipio agerikoak» eta ez «printzipioak» eta kito.

TOMAS: Izenlagunak gehitzea gogoko dudalako izan da.

VANDA: Zure arima saldu duzu izenlagun oker batengatik, ala?

TOMAS: Errudun ni.

VANDA: Ezkutuan, Tomas? Gaiztoa zara gero!

TOMAS: Errudun ni berriz.

VANDA/DUNAYEV: *Gure gizartean, emakumearen botere bakarra gizonen bitartez lortzen dena da tar-tar-tar ikusi nahiko nuke nolakoa izango den emakumea gizonen esklabo izateari uzten dionean. Gizonen parekoa denean bai hezkuntzan eta bai lan-munduan. Bera bihurtzen denean. Pertsona aske bat.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Hori diozu pertsona aske bat zarelako, izatez.*

VANDA/DUNAYEV: *Gizon batek askatasuna urritu nahi dion emakume bati diotso hori.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Ez bazaitu nire aburuak ernegatzen, esango nuke ez zarela bakarrik greziarra paganoa eta indibiduala. Jainkosa ere badirudizu.*

VANDA/DUNAYEV: *Benetan? Zein?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Venus.*

VANDA: Eta Vanda benetan da Venus, ezta? Ala jota nago? Mozorrotuta-edo dago, eta gizona zigortzeko etorri da. Torturatzeko.

TOMAS: Beno...ez bereziki...

VANDA: Konforme, ez dut galdetuko. Seguruenik zera izan gurako zenuke, anbibalentea.

TOMAS: Anbigua.

VANDA: Hori, hori.

TOMAS: Egia esan, *Bakanteak* obraren istorio bera da, ezta?

VANDA: Noski! Zer ostia dira *Bakanteak*? Broma da. Antzezlan zaharra da, uste dut.

TOMAS: Bai, horixe bera.

VANDA: «Korintoko biztanleok!». Horietako lan bat? «Hona hemen gizon hilgarri hau, Testiculus, jainkoei egindako irainengatik madarikatua eta betirako izorratua!».

TOMAS: Bai, istorio horietako bat da. Dioniso jainkoa lurrera jaisten da eta Tebaseko Penteo erregea soinekodun gelatina femenino eta dardarti mordo bat bihurtzen du.

VANDA: Ederra kontua!

TOMAS: Eta gero Tebaseko emazte zoratuek –Bakanteek– txiki-txiki egiten dute Penteo,

eta Dioniso garaile ateratzen da.

VANDA: A, bai, bai, uste dut ikusita daukadala.

TOMAS: Hemen ordea ez gara Dionisoz ari, Afroditz baino.

VANDA: Hori da! Pistarik...?

TOMAS: Afrodita Venusen bertsio greziarra da.

VANDA: Pertsona berbera.

TOMAS: Jainkosa berbera.

VANDA: Agur, Afrodita!

TOMAS: Agur, Afrodita! Pedante jasanezina naizela uste?

VANDA: *Baip.* Baina nahiko potxoloa zara. Zertan genbiltzan?

TOMAS/KUSHEMSKI: *Jainkosa ere badirudizu.*

VANDA/DUNAYEV: *Benetan? Zein?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Venus. Baina Venusen printzipio paganoek funtzionatuko al lukete gure mende zibilizatuan? Eta esklaborik gabekoan? Greziarrak esklaboak zituztelako bizi ziren horren aske.*

VANDA/DUNAYEV: *Orduan halako baten beharra omen dut. Nire esklaboa izango zinateke, Herr Doktor Kushemski?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Pozarren. Emadazu «Ni naiz Pompadour, ni naiz Borgia, adoratzen duzun nagusia» esateko onestasuna duen emakume bat, eta haren oinetan belaunikatuko naiz.*

VANDA/DUNAYEV: *Baina non aurkituko luke Afroditak bere jabea gaur egun?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Gizon batek ere ez du balio jainkosa bat dominatzeko. Bakarrik balio du hark menperatua izateko.*

[Belauniko jartzen da].

Menpera nazazu.

VANDA/DUNAYEV: *Zer, maiteminduta dagoeneko?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Sakonki. Eta betidanik ezagutuko bazintut bezala sufritzen.*

VANDA/DUNAYEV: *Altxa zaitetz. Urrundu nigandik.*

[Urrundu eta zutik jartzen da].

Esan beharra dut jakingura eragiten didazula. Zure zintzotasuna eta pentsamendu argiak gustatzen zaizkit. Zure jakituria zabala, zure sentimenduen sakontasuna. Fisikoki ez zara itsusia. Baina gizonezko batek nire aurrean men egiten duenean, azpijoko-usaina igartzen dut.

TOMAS/KUSHEMSKI: *Ez dago tranparik. Maite nazazu eta kito.*

VANDA/DUNAYEV: *Ikusten? Agintzen hasi zara.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Ezkondu zaitez nirekin.*

VANDA/DUNAYEV: *Emakume friboloa naiz, Herr Kushemski. Zeharo ausarta izan beharko zenuke ni maitatzeko. Aitortuta dizkizut nire printzipioak eta nire bizimodua.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Dakidan bakarra da emaztetzat nahi zaitudala.*

VANDA/DUNAYEV: *Ez dakizu deus nitaz.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Domina nazazu.*

VANDA/DUNAYEV: *Zentzugabekoa da.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Denboraren poderioz boterea lapurtzen saiatuko zara, maitale orok egiten duen moduan. Zergatik denbora galdu ahaleginean? Nire botere guztia ematen dizut aurretiaz, orain eta beti. Baldintzarik gabe. Domina nazazu. Egin nirekin nahi duzuna. Jo nazazu gustuko izanez gero.*

VANDA/DUNAYEV: *Hara, hau erabat berria zait.*

TOMAS: *Jar zaitez han.*

VANDA: *Zer?*

TOMAS: *Jartzeko dibanaren ondoan.*

VANDA: *Hemen erosoago nago.*

TOMAS: *Ongi da, baina uste dut han egon beharko zinatekeela. Boterea hartzen ari zara. Har ezazu, ba, botere-posizioa.*

VANDA/DUNAYEV *[dibanaren ondoan jartzen da]*: *Hara, hau erabat berria zait. — Ez, ez nago eroso.*

TOMAS: *Geldi hor eta saiatu. —Nire botere guztia ematen dizut aurretiaz, orain eta beti. Baldintzarik gabe. Domina nazazu. Egin nirekin nahi duzuna. Jo nazazu gustuko izanez gero.*

VANDA/DUNAYEV: *Hara, hau erabat berria da.*

TOMAS: Ez zara saiatzen ari.

VANDA: Hemen gura ninduzun, hemen naukazu, lerroa esaten nago. Eta... egun on!
Casting bat da.

TOMAS: *Casting* batean aginduak jasotzeko gai zaren ikustea ere bada. Geldi hor.

[*Obeditzen du*].

Nire botere guztia ematen dizut aurretiaz, orain eta beti. Baldintzarik gabe. Domina nazazu. Egin nirekin nahi duzuna. Jo nazazu gustuko izanez gero.

VANDA/DUNAYEV: *Hara, hau erabat berria da.— Aiba, arrazoia zeneukan. Horrela askoz hobeto.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Gizonen eta emakumeen etorkizuna da hau. Utziozu belaunikatzen belaunikatu behar duenari. Utziozu azpiratua izan nahi duenari azpiratua izaten.*

VANDA/DUNAYEV: *Zer nahi duzu, zure bihotz-bihotzean?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Hutsaren hurrengo izatea. Borondaterik ez izatea. Zure jabetzakoa izatea eta zure esentzia gorenean desegitea. Zu janzteia eta eranztea, galtzerdiak ematea eta oinetakoak jartzea.*

VANDA/DUNAYEV: *Horri deitzen al diozu maitasuna?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Klase garaienetarikoa. Gehienek beren jainkoarentzat gordetzen duten hori. Maitasunean, politikan bezala, bikoteko batek eman behar ditu aginduak. Bietako batek izan behar du mailua, eta besteak ingudea. Dohatsuki onartuko dut ni neu izatea ingudea. —Geldituko naiz?*

VANDA: Ez, ez, gustatzen zait. Asko, gainera. Bejondeizula, hori bai pertzepzio zoragarria! Emakumeen ingurukoa, bereziki. Tomas, benetan ulertzen dituzu emakumeak.

TOMAS: Urte askoko eskarmentua. Non nengoen?

VANDA: Ingudearena egiten.

TOMAS/KUSHEMSKI: *Bai! Maitasun bizia elkarren kontrakoengandik jaiotzen da. Vanda, nik mina bilatzen dut, eta zuk, plazera. Eta plazera bilatzen duzunez, ezin dituzu inoiz inoren sentimenduak eragotzi. Penarik gabe gozatu behar duzu, zure nahiak gupidarik gabe ase. Berak erabiliko zintuen moduan erabili behar duzu maitalea. Aginduak eman behar dizkiozu, azken tantaraino xukatu.*

VANDA/DUNAYEV: *Miresgarria zara.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Ez banauzu senartzat hartzen, har nazazu orduan esklabotzat.*

Trata nazazu krudelkeria jainkotiarraz. Zigor nazazu naizena izateagatik, eta jainkosa gisa eskubide hori duzulako.

VANDA/DUNAYEV: *Zergatik tratatuko nuke gaizki maite nauen gizon bat?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Are gehiago adoratuko zaitudalako.*

VANDA/DUNAYEV: *Ez dut adora nazazun nahi.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Hori da zure ezpainetatik atera den lehen gezurra. Emakume orok nahi du adoratua izan, gure Sortzaileak nahi duen bezala. Sor nazazu, beraz. Birrin nazazu! Txiki nazazu!*

[Telefonoz deitzen diote].

Barkatu.

[Telefonoan].

Aupa. Ez, hemen nago oraindik. Ez, ongi nago, lasai. Ez dakit, agian minutu pare bat barru. Deituko dizut irtetzerakoan. Primeran. *Ciao*, pitxin.

[Eskegi egiten du].

Zertan genbiltzan?

VANDA: Barkatu.

[Mugikor bat hartzen du zorrotik. Telefonoan]:

Aupa. Ez, ondo nago, *tenplau*. Proba ederto batean joan da. Ikusteko dago hori. Bide batez, aldi baterako laneko enpresa batean nago orain, hauen ustetan zerbait dago niretzat. Bai, diktafonoz idaztea. Gaueko lana, egunsentira arte idazten. Enpresa legal bat, antza, kontratua bidaliko didate bihar baino lehen, *bla bla bla*. Ez dakit, ba. Ai, hori lastima! Lastima esan dut. *Bale* ba, agur.

[Eskegi egiten du].

Jesus...

TOMAS: Zure azukre koxkorra?

VANDA: Norbaitek hori esaten du oraindik?

TOMAS: Barkatu. Zer erabiltzen da orain «azukre koxkorraren» ordeez?

VANDA: «Pailazoa».

TOMAS: Berdin dio.

VANDA: Zure buruari galdetzen egongo zara zergatik esan dizudan gezurra, ezta?

TOMAS: Ez da nire kontua.

VANDA: Zer dio Vandak? «*Zergatik eutsi beharko nioke gogoari?*». Baditut larrua jotzeko beste arrain asko itsasoan. Esaera zaharrak dioen bezala.

TOMAS: Beraz, zu zara mailua eta Kushemski ingudea.

VANDA: Zer suposatzen da egin edo esan behar dudala, aha, ongi da, laztantxo, zuk gura duzuna? Guztiz kontrolatua izatea? Hau ez da maitasun kontua. Hau nire lekua aurkitzea da. Nire zati bat gura baduzu, gainerakoa ere jasan beharko duzu. Ez da antzezlan honek kontatzen duena?

TOMAS: A, bai?

VANDA: Adarra jotzen zabilta?

TOMAS: Ez dakit. Horretan nabil?

VANDA: Ibiliko ez zara, ba! Kushemskiri piloa gustatzen zaio kontrolatua izatea.

TOMAS: Benetan?

VANDA: Txo, utziozu tonto-plantak egiteari. Dantzaleku batean egotea bezala da zurekin.

TOMAS: Kaferik nahi? Zertxobait geratzen da oraindik, mundruna emango duen arren. Pixka bat ekar diezazuket. Nahi duzu?

VANDA: Nirekin ligatzen ari zara, Tom?

TOMAS: Ez, bakarrik jakin nahi nuen kaferik nahi ote duzun.

VANDA: «Kafe sinbolikoa» da?

TOMAS: Ez, benetako kafea. Edateko kafea.

VANDA: Zer esango lizuke emazteak niri benetako eta edateko kafea eskaintzen ikusiko bazintu?

TOMAS: [*bi kikara kafe prestatzen*]: Ez nago ezkondata.

VANDA: Eta orduan, telefonokoa...

TOMAS: Nire emaztegaia da hori.

VANDA: Alderik ez. Zer pentsatuko luke zure emaztegaiak? Ez zara zu, behin, elkarrizketa batean, «antzerki-mundun lan egitea txurroa bustitzeko modurik eraginkorrena dela» esan zuena?

TOMAS: Oso gaztea nintzen, eta nire lehen elkarriketa zen.

VANDA: Eta ez zara sekula ezkondu?

TOMAS: Ba ez.

VANDA: Amatxorekin bizi zara, orduan?

TOMAS: Ez, *kink* oso zaharkitu bat baino ez dut.

VANDA: Azeri-larrua?

TOMAS: Maitemintzea.

VANDA: Ba *kink* nahiko serioa da.

TOMAS: Kontua da, maitemintzen naizenean...

VANDA: Topea jo arte zoazela, e?

TOMAS: Istantean. Bolanderak. Orbanak begien aurrean. Kaosa. Tximistak.

[Tximistargia].

Otsoa aipatu, otsoa agertu.

[Kikara bat hurbiltzen dio].

Beraz...kafea, bai ala ez?

VANDA/DUNAYEV *[kikara hartzen du].: Nire burua imajina nezake bizitza osoa gizon bati lotuta, baina soilik nire errespetua lortuko balu, bere indarrarekin azpiratuko banindu, esklabo bihurtuko banindu. Gizon baten aurrean belaunikatuko nintzateke eta lepoa makurtu eta haren esklabu izango. Badirudi, hortaz, ez gaudela bata-bestearentzat eginak, ezta? Elkar indargabetzen dugu.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Bada, nik diotsut elkarrentzat sortuak garela. Ez duzu gauza bera sentitzen, Vanda? Ez duzu zuk ere sentitzen?*

VANDA/DUNAYEV: *Esperimentu bat proposatuko dizut. Akordio komertzial bat, bestela esanda. Urtebete emango dizut frogatzeko nire aukerako gizona zarela.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Urtebete oso luzea da.*

VANDA/DUNAYEV: *A. Baldintzak jartzen ari zara orain?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Barkamena eskatzen dizut.*

VANDA/DUNAYEV: *Urtebete horretan, nire senarra edo esklaboa izateko parada ematen didazunez, nire esklaboa izango zara. Jakinda nolakoak zareten gizonok, kontratu*

bat idatziko dut baldintzak finkatzeko — Uala! Prest dagoela dirudi, e? Nire ustetan betidanik egon da prest, eszena hori gertatu aurretik ere.

TOMAS: Bai, ala?

VANDA: Geldituko zara behingoz? Zuk idatzi duzu, zuk esan.

TOMAS: Ez dakit «prest» zegoen, zuk diozun bezala. Eta ez naiz tonto-plantak egiten ari.

VANDA: Igual anbibalentea izan gura zenuen.

TOMAS: Anbigua.

VANDA: Anbigua. Edo bakarrik oso pottobero zegoela eta ez ziola inporta nola eiakulatu?

TOMAS: «Pottobero». Zergatik ez zitzaidan bururatu?

VANDA: Edo... *igual* akordio neketsuago bat proposatzen ari zaio: «izan zaitez nire esklabo urtebeterako eta gero txortan egingo dugu»? Anbibalentea izaten saiatu zara.

TOMAS: Anbigua.

VANDA: Anbigua.

TOMAS: Nire ikuspuntutik – Kushemskiren ikuspuntutik – nire azken aukera izan zaitezke. Agian nire aukera bakarra.

VANDA: Ni? Zertan?

TOMAS: Bizitzan. Kushemski den norbaiti normala iruditzen zaion bizitza batean.

VANDA: A, *klaro*. Zaplaztekoekiko eta azoteekiko *kinka* du eta bestea hori egiteko gauza den ikusi gura du. Proba bat egiten ari zaio.

TOMAS: Elkarren arteko proba da.

VANDA: Bata bitxia da. Bestea, produktu bat. Mila zortziehun eta hirurogeita hamapikoko emakume guztiak bezala.

TOMAS: Nor zara, Frau Vanda Jordan?

VANDA: Paganoa, greziarra.

TOMAS: Ez, egiatan.

VANDA: Berriz zabilta nirekin ligatzen.

TOMAS: Munduko zein tokitatik zatoz? Nongoak dira zure sustraiak?

VANDA: Militar baten alaba naiz. Ez naiz inongoa.

TOMAS: Nongoa, zein hiritakoa, zein estatu?

VANDA/DUNAYEV: *Urtebete horretan, nire senarra edo esklaboa izateko aukera ematen didazunez, nire esklaboa izango zara. Jakinda nolakoak zaretan gizonok, kontratu bat idatziko dut baldintzak definitzeko. Onartzen duzu? Agintzen didazun oro.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Agintzen didazun oro.*

VANDA/DUNAYEV: *Eskua luzatzen dizut – Eskua ematen diote elkarri.*

[Eskua ematen ari diren itxura egiten dute urrutitik].

Greziar bat etorri da herrira.

TOMAS/KUSHEMSKI: *Greziar bat...?*

VANDA/DUNAYEV: *Benetako bat. Almazari zuri-zuri baten gainean dabil, larru beltzeko bota altuak daramatza eta zerbitzari beltz pare bat izaten ohi du atoian. Nondik datorren jakin nahi dut, iker ezazu haren bizitza osoa. Animalia eder horri niri gorte egin diezadan utziko diot.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Baina Vanda...*

VANDA/DUNAYEV: *Zer duzu? Erreboltan hasi gara dagoeneko?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Barkatu.*

VANDA/DUNAYEV: *Itxaroidazu bihar urkidian, Afroditaren estatuaren parean.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Zer ordutan?*

VANDA/DUNAYEV: *Iristea erabakitzen dudan arte itxarongo didazu. Eta ez zaitez etorri greziar horri buruz ezer dakizun arte. Musukatu nire oina.*

TOMAS *[ez du egiten, bakarrik burua makurtu].*: *Belaunikatu eta oina musukatzen dio.*

VANDA: *A sako gustatzen zait une hori. Punba, «musukatu nire oina»— orain jarridazu larrua sorbalda gainean.*

[Xala janzten dio, baina sorbaldetatik heltzen dio].

Severin, zer puntutaraino helduko da hau guztia?

TOMAS/KUSHEMSKI: *Hori zure esku dago, Frau Vanda von Dunayev, ez nirean. Elkar ikusiko dugun hurrengoan, zera...*

VANDA/DUNAYEV: *Zera zer?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Jantziko duzu larrua?*

[Trumoi en burrunba].

VANDA: Eskerrik asko kafeagatik, esklabo kutuna.

[Etena].

Benetan behar dut bat orain. Kafea, esan gura dut.

[Berriz pizten ditu fluoreszenteak eta kafe gehiago hartzen du mahaitxoan].

Bua. Leo zaharra oso grinatsua zen. Egin beharreko bakarra eskuak ematea zuten eta gero dena bihurtzen da erotiko.

TOMAS: Garai erreprimituago bateko poza. Elkarrizketa bera erotikoa zenekoa.

VANDA: Elkarrizketa eurek zuten guztia zenekoa. Baina hori ez da horrela agertzen liburuan. Hau da...

TOMAS: Liburua ezagutzen duzu, orduan. Irakurrita zeneukan «Larruetako Venusa»?

VANDA: Bai, beno, kopia bat aurkitu nuen eta begirada bat eman nion.

TOMAS: Eta gezurretan zenbiltzan lehen. «Orduan antzezlan zera dago, zerbaitetan edo horrelako zerbaitetan oinarrituta?»

VANDA: Bai, beno, puntuak lortu gura nituen. Eta esan duzu ez dela *sadomaso*; begira nik daukadan kopia.

[Liburu bat ateratzen du poltsa handitik].

Orratz-takoidun txarolezko botak eta usta bat, eta neska baten ipurdi biluzia. Hau ez da bereziki Tiziano. *Sadomaso* baino, txiki. Pornoa da. Kartelean jartzen baduzu hori, sarrera guztiak salduko dituzu.

TOMAS: Zure Venusa gidoia bezain usatua dago. Ez duzu kasualitatez aurkitu eta begirada bat eman, ezta? Hori ere gezurra zen.

VANDA: Bai, beno, zertxobait dakit liburuaz. Baina zergatik ez duzu Venusen eszena hori jarri? Kushemskiri agertzen zaionean, hasiera-hasieran? Biluzik larru batekin sutondo baten aurrean?

TOMAS: Ez nekien nola txertatu.

VANDA: Jarri goian –nolabait esateko– eta listo, Vandak berba egin aurretik. Ezin duzu Larruetako Venusa egin Venus gabe. Aktore bera ere izan dezakezu bi paperak antzezteko. Nik egingo dut. Antzezlekuan biluzik jartzeko diostazu? Zortekoa zu. Bi paperak prezio berean utziko dizkizut.

TOMAS: Pentsatuko dut.

VANDA: Zergatik pentsatu? Hobetu dezakegu. Igual ideia pare bat etorriko zaizkizu. *Okei, Venus naiz orain.*

[Soinekoa lurrera erortzen utzi eta hanketatik askatzen du. Bularrekoarekin eta pantiekin dago berriz].

Imajina nazazu biluz-biluzik.

TOMAS: Nirekin ligatzen ari zara, ezta, Vanda?

VANDA: Tira, nagusitxo zara. Pentsatu zure emaztegaia naizela, eta inprobisatu.

TOMAS: Ez dut sekula egin honelakorik.

VANDA: Hori esaten dute neska guztiek.

[Trumoi berrunba].

Tontakeria bat da, pertsonaian sartzeko. *Bale*, testuingurua, non gaude? Antzezlanaren hasieran.

TOMAS: Bai, beno, Kushemskiren logelan. Gau erdian...

VANDA: Hori da. Gau erdian. Goizeko ordu biak eta bi...

[Berriz itzaltzen ditu fluoreszenteak, fusible-kaxara doa eta gauerako argiak aldatzen ditu].

Igual kandela bakarra dago piztuta.

[Mahaiko pintzadun fokua pizten du].

Eta sutondoa txinpartaka, antzezlekuaren ezkerretara.

TOMAS: Antzezlekuaren eskuinetara.

VANDA: Antzezlekuaren eskuinetara. Ondo. Eta Kushemski zertan dago?

TOMAS: Ez dakit. Irakurtzen.

VANDA: Nola ez!

TOMAS: Hutsalegia?

VANDA: Irakurtzen egongo bada Vanda ezagutzerakoan, ezin da hemen irakurtzen egon. Eta liburutegiko txartelak banatzen balego? Zergatik ez?

TOMAS: Egunerokoa idazten ari da.

VANDA: Gustatzen zait. Idazmahaian dago jesarrita, bizkarrez. *Igual* sutondoa txinpartaka dago eta Venus biluzik ikusten dugu katu bat bezala kiribilduta, larru batek larden estaltzen duela.

[Berriz etzaten da dibanean].

Estal nazazu, ba. Zu zara-eta zuzendaria.

[Hurbildu eta «larruaz» estaltzen du. Segidan urruntzen da]

Lerden.

[Bueltan doa berriz estaltzera, mantsoago, momentu batez geldirik egonda].

Orain zoaz idazmahaira. Agudo. Eta sar zaitez pertsonaian.

[Tomas «pertsonaian sartu» eta mahaira doa].

Idatzi zure egunerokoan, zerbait.

TOMAS: Horretan ari naiz.

VANDA: Ozen. Hau antzerkia da. Nola ikusiko dugu, bestela, nor zaren? Ikuskizunaren lehen zatia da, argitzen hasi da. Entzuten den bakarra erloju zahar baten soinua da. Tik, tak, tik, tak, TIK, TAK...

TOMAS/KUSHEMSKI: «1870ko urriak 22. Goizaldeko 02:02ak. Basoez eta naturaz inguratutako bainuetxe batean nago. Ez da ilargirik gaur gauean, iluna eta isila baino ez...»

[Vanda txorrotxioka hasten da].

«Ez, itxaron. Zera entzuten dut...

[Berriz egiten du txio].

Txolarre bat».

VANDA: Urretxindor bat.

TOMAS/KUSHEMSKI: «Urretxindor bat».

[Vandak karranka egiten du].

...eta katu ohara baten ulua. Ez dakit zer dela eta sentitzen naizen izugarri bakarrik, eta bakarti. Bihozminduta, atsekabetuta. Aterako nau norbaitek nire izena daraman infernu honetatik? Severin von Kushemski».

VANDA/VENUS: *Guten Abend, mein Herr.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Hara, hara. Alemaniarrek beste behin inbaditu gaituzte?*

VANDA/VENUS: *Espero dut eragotzi ez izana...*

TOMAS: *Ezta pixka bat ere. Agur, Afrodita!*

VANDA/VENUS: *Ezz nauzzu ahaztu orrduan?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Zu ahaztu? Nire etsairik zaharrena eta maiteena?*

VANDA/VENUS: *Zzeinen moñoñoa zzarren! Ezz dioz zu nire eskuarri musu eman nahi?*

[Hala egiten du].

Primeran. Ja, Baina Tomas... - Tomas esan dut? Ups! – Ja, baina Severin. Hotz handia dago hemen. Bisitan natorkizun bakoitzean hotzeria izaten dut.

[Doministikua].

Ikusten? Flemmak ditut hodietan.

TOMAS/KUSHEMSKI: *Agian ez bazina biluzik ibiliko denbora guztian...*

VANDA/VENUS: *Ja, baina Venus naiz. Biluzik egon behar dut beti, norik ezagutzen nau hemen? Ez al duzu arropa lakar horiek erantzi eta niri laztan egin nahi? Tokia dago hemen nire bisoipean.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Ez, eskerrik asko.*

VANDA/VENUS: *Baina bisoia zuretzat bereziki ekarri dut, Olinpotik. Zerutarra da. Ikusten etiketa? Zeruan Egina.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Zergatik egongo nintzateke zure bisoian interesatuta?*

VANDA/VENUS: *Ai, Severin, ezagutzen dut zure aiher txiki hori Animalia-larru baliotsuen zaletasun bizia zurea. Nazkagarria da. Ez duzu emakume bat nahi, haren larrua baizik. Hobe zenuke mapatxe batekin ezkonduko bazina.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Hobe mapatxe bat ezagutzen dudan emakume oro baino.*

VANDA/VENUS: *Ja, baina bisoi hau nirekin izzanda, nire emazte perfektua izzango zara.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Bai. Eta gero zuk eta zure bisoiak beste gizon bat laztantzeko utziko nauzue. Edozein hezur-haragizko emakumek egingo lukeen bezala.*

VANDA/VENUS: *Ja, baina nire bisoipean izterrak irekiko banitu, ez nindukezu hartuko?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Hau ez da Ponpeia, badakizu. Hau zibilizazioa da.*

VANDA/VENUS: *Zer da hori, sifilizzazio?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Zibilizazioak esan nahi du ez dizkiogula edozeini izterrak irekitzen. Printzipioak ditugu.*

VANDA/VENUS: *Ja, ja, gizon modernoa, gero! Zure printzipioak nahi dituzu egunez; gauez, aldiz, biluzik dantza egitea su baten inguruan. Und deabru bihurtzen nauzu ni, maitasunaren beldur zarelako oso.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Maitasuna. Hori da niri eskaintzeko duzuna?*

VANDA/VENUS: *Baliteke.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Boterea, hori nahi duzu zuk. Nitaz jabetu nahi duzu, eta oinak nire lepoan jarri Ponpeiako tirano zeken ororen antzera. Nire betebeharrak zibilizatua da, ordea, zuri aurre egitea!*

VANDA/VENUS: *Eta lor dezakezula uste duzu oraindik? Niretzat makurtuko ez zarela uste duzu?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Sekula ere ez.*

VANDA/VENUS: *Aurre egiten ausartzen zara?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Bai, hala da.*

VANDA/VENUS: *Sastar alfer hori! Ziztrin hori! Jainkosa bati aurre egiten ausartzen zara?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Hainbat urtez aurre egin dizudan moduan. Zure sexuak emakumearen krudelkeria lehen aldiz irakatsi zidanetik.*

VANDA/VENUS: *Severin, belauniko hurbilduko zatzaizkit. Erruki eske izango zaitut.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Sekula ere ez.*

VANDA/VENUS: *Nirea zara dagoeneko, eta nirea izango zara luzerako!*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Sekula ere ez!*

VANDA/VENUS: *Badakizu zer dioten: ez hartu zerbait txartzat jaten ez duzun arte. Auf Wiedersehen, mein Freund. Bueltan izzango naiz. – Eta, zapla! Desagertu egiten da!*

TOMAS: *Arranopola!*

VANDA: *Dezente ona, aizu.*

[Vandak berriz aldatzen ditu argiak].

TOMAS: Arranopola!

VANDA: Esandako guztia idatzi eta bere horretan itsats dezakezu gidoian.

TOMAS: Zuk badiozu...

VANDA: Marlene Dietrichen azentua gehituko nioke nik *igual*...

TOMAS: Ez, bikain zegoen. Primeran. Kushemskiren alderdi guztiz desberdina da hau.

VANDA: *Ya*, hemen Venusekin dago gau erdian eta hasten da: *ez, ez, urdanga halakoa*. Hurrengo goizean Vandarekin, aldiz, *eraman nazazu zurekin, meeeeeesse*.

TOMAS: Argiak jaits ditzakezu horretarako, berriz igo goizalderako, kax-kax-kax, eta horra hor Vanda. Venus mozarrotuta.

VANDA: Mendekua hartzen.

TOMAS: Hori da!

VANDA: Zu zara, beraz?

TOMAS: Zer?

VANDA: Hau. Zu zara? Kushemski – Novachek, Novachek – Kushemski.

TOMAS: Ez, ez naiz ni.

VANDA: Edo *igual* Vanda zara.

TOMAS: Antzezlan honek ez du zerikusirik nirekin.

VANDA: Aha. Hesiaren beste aldera begira zaude. Idazlea baino ez zara. Barkatu. «Egokitzaila».

TOMAS: Zergatik pentsatzen du beti jendeak antzerkigile batek idazten duen jendearen isla behar duela bai ala bai?

VANDA: Antzerkigileek txorakeria hori egiten dutelako etengabe. Antzezlan batean jartzen banauzu noizbait, hil egingo zaitut.

TOMAS: Ezin al ditut pertsonaiak idatzi eta kito?

VANDA: Noski baietz. Eta kasualitatez pertsonaia horiek Alemaniako eleberri *sadomaso* zahar horretan aurkitu dituzu, Herr Doktor Novachek.

TOMAS: Liburu famatua da.

VANDA: Ez zenuen izan, orduan, ezusteko xalo bat hamabi urte zenituenan?

TOMAS: Ez.

VANDA: Liburutegian?

TOMAS: Ez.

VANDA: Katu batekin?

TOMAS: Ez.

VANDA: *Igual zure goren aldiaren zain zaude oraindik.*

TOMAS: Begira. Harreman hau zirrargarria zelakoan nengoen. Oso aberatsa, oso konplexua.

VANDA: *Okei.*

TOMAS: Uste nuen istorioa dramatikoa zela. Teatrala, izatez.

VANDA: Emakumeak gehiegi protestatzen duela uste dut. Kasurik ez, segi.

TOMAS: Pertsonaien emozioen handitasuna gogoko dut, batez ere. Inork ez du horrelako emoziorik dagoeneko. Emozio neurrigabeak. Emozio hunkigarriak. Kushemski eta Vanda Tristan eta Isolda bezalakoak dira, Paolo eta Francesca dira. Inor ez dago emozionalki horren menperatua dagoeneko. Inork ez du pasioak horrela garaitzen uzten, edota amorru mota horretatik pasatzen.

VANDA: Ba nire lagun batzuk ezagutuko bazenitu...

TOMAS: Ongi da, ados. Agian ni naiz. Baina badaude emozio horiek dituzten pertsonak ezagutzen ez dituzten beste batzuk. Ez al goaz antzerkira bizitzan ez ditugun pasioen bila?

VANDA: Uste nuen bizitzara joan behar genuela bizitzan bertan ez ditugun pasioen bila.

TOMAS: Ongi da, ados. Ez dakit deus ere.

[Salto batez etzaten da dibanean].

VANDA: Beraz, etxera zoazenean, Emaztegaik ez zaitu ohera lotzen eta zartailu bat ateratzen?

TOMAS: Ez.

VANDA: Eskatu beharko zenioke, eta ikusi Emaztegai prest egongo litzatekeen horretarako.

TOMAS: Utziko diozu Emaztegai deitzeari?

VANDA: Barkatu. Zer sentimendu dauzka zure Azukre Koxkorrak antzezlan honen inguruan?

TOMAS: Ez du guztiz gogobetetzen.

VANDA: Segur aski kezkatuta egongo da zure alderdi sutsu honetaz eta ez du zuk antzezlan honekin jarraitzea nahi, jendeak zuri buruzkoa dela pentsatuko duelako. Edo Stacyri buruzkoa.

TOMAS: Ba ez da ez niri ez berari buruzkoa.

VANDA [*dibanaren burualdera hurbiltzen du aulkia, psikoanalista bat bezala*]. Baina goazen asmatzera...Nolakoa den...

TOMAS: Stacy.

VANDA: Stacy. Zu baino apur bat gazteagoa da. Familia onekoa. Harrizko etxe zahar polit horietako batean hazi zen. Connecticuten *igual*.

TOMAS: Massachusettsen, egia esan.

VANDA: Massachusettseko hego-mendebaldean, Connecticuteko mugatik gertu. Litchfieldetik hogeit hamar minutura. Hurbildu naiz?

TOMAS: Baietz aitortu beharko.

VANDA: Altua da. *Igual* apur bat agintzailea, zentzu onean. Ile eta hanka luzeak, buru argia. Ziur aski Stanfordera joan zen. Hurbildu naiz?

TOMAS: UCLA Unibertsitaterra.

VANDA: Doktorego bat *inkluso*. Bai?

TOMAS: Doktore tesia ari da bukatzen.

VANDA: Txakur bat dauka. Baliteke Weimaraner arrazakoa izatea. Gustuko duzu, baina, ezkutuan, ondo moldatuko zinen bera gabe, eta izena... zerbait tradizionala, Itun Zaharrekoa eta gizonezkoa. Adibidez... Seth. Ezra.

TOMAS: Noah. Uste nuen ez zenekiela ezer Bibliaz.

VANDA: Baietz berak eraman ogia etxera, gainera. *Eske aber*, gela bat hodi batekin erdi-erdian? Ez aurrekontu oso handikoa Broadway izateko. Dirua zeukan lehenagotik segur aski, baina bere tesia amaitzen duen bitartean inbertsiozko lanpostu on samar batean dabil. Edo salerosketa kontuetan eta dirutza egiten. Arrazoa daukat? Arrazoa daukat. Baina, aizu, artista bat zara. Horrek dauka bera txora-txora eginda. Eta soberan daki noizbait arrakasta handia izango duzula. Gainera, zure sentikortasuna baloratzen du. *Igual* ezagutzen duen lehen gizona zara horrekin berarekin. Pila bat irakurtzen du. Zure liburu berberak. Opera eta balleta eta gauza horiek gogoko ditu. Zuk bezala. Gauetan Frantziako filosofian zer pasatzen ari den eztabaidatzen duzue, eta ezer berririk ote dagoen *New York*

Review of Books aldizkarian, eta gero sexu isila edukitzen duzue. Eta ondo dago sexu isila edukitzea. Baina marmar hori daukazu zeure buruan. Zerbait gehiago nahi duen ahots hori. Ez dakit zer izango den, baina Mar-mar-mar. Eta, hala eta guztiz ere, zoriontsua zara. Gogoko duzu neska, bene-benetan, eta bizitza ederra edukiko duzue batera Frantziako filosofiari eta New York Reviews of Books aldizkariari buruz berba egiten, eta handitan gauza berbera egin dezaketen bizpahiru haur edukiko dituzue *igual*. Eta gero hil.

TOMAS: Hain gardenak gara, ala? Ez naiz Stacyren eta bion artekoaz ari.

VANDA: Zer dio antzezlanak? «*Geure burua aise azaltzeko gai gara denok. Ez, ordea, aise askatzeko*». Edo ez zenuen hori sinisten idatzi zenuenean? Ze lerro hori ez dago liburuan. Begiratu egin dut. Eta zu ez zara Kushemski.

TOMAS: Ez.

VANDA: Jarraituko dugu irakurtzen?

TOMAS: Bai, ea...

VANDA: Hurrengo egunean elkar ikusten direnean? Urkidian?

TOMAS: Hori da.

[Trumoiien burrunba. Vandak berriz janzten du soinekoa, eta Tomasek tokiz aldatzen ditu aulkiak].

Hau iturria izango da eta hodia, Venusen estatua.

VANDA: Agur, Afrodita!

TOMAS: Agur, Afrodita!

[Vandak bizkarra ematen dio Tomasi kremlera igo diezaion. Tomasek hala egiten du. Etena].

Begirada bat eman nahi eszenari?

VANDA/DUNAYEV: *Ez, Severin. Ez. Ez. Ez da morala. Zapalkuntza eta esklabotzari buruzko hitzaldi hau guztia. Bide okerretik eraman nauzu zure hitzaldiarekin.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Zure bihotz-bihotzean gizon bat kontrolatzen gozatuko zenukeen sinesmena dut.*

VANDA/DUNAYEV: *Ez.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Baita torturatzen ere.*

VANDA/DUNAYEV: *Ez.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Aitortu zure izaera.*

VANDA/DUNAYEV: *Ez da nire izaera.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Ikusi zein den zure izaera. Edo alda ezazu.*

VANDA/DUNAYEV: *Ezin al zara zentzatzzen saiatu?*

TOMAS: *Ez da zentzua bilatzen ari naizena. Esan zenidan ez zeniola esperientzia posible bati ere uko egingo.*

VANDA/DUNAYEV: *Eta hitza jatera behartuko nindukezu.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Benetan ari zinela erakustera behartuko zintuzket.*

VANDA/DUNAYEV: *Severin, ez al duzu ikusten? Ez al duzu aditzen ez zarela inoiz salbu egongo emakume baten eskuetan? Ezein emakumeren eskuetan? – Zati hau oso sexista da, goragalea ematen dit.*

TOMAS: *Ez da sexista. Zer du sexista?*

VANDA: *«Ez zara inoiz salbu egongo emakume baten eskuetan»?*

TOMAS: *Liburukoa da hori.*

VANDA: *Niri bost nongoa den. Sexista da. Den-dena da dezente topikoa, pentsatzen hasten bazara.*

TOMAS: *Zer da topikoa hemen?*

VANDA: *Ipurdikoa ematen diotela behin eta, bingo, zartailuak eta kateak gustatzen zaizkio?*

TOMAS: *Itxuraz Sacher-Masochi gertatu zitzaion.*

VANDA: *Eta zuri?*

TOMAS: *Ez.*

VANDA: *Nola dakizu, orduan?*

TOMAS: *Niretzat, konponbiderik gabe elkartzen diren bi pertsonen inguruko antzezlan bat da hau. Bihotzetik daude bilurtuta.*

VANDA: *Bai, Kushemskiren kinkak elkartuta.*

TOMAS: *Ez. Bien pasioak.*

VANDA: *Gizonarenak.*

TOMAS: Vandaren pasioa ezeztatzen zaude. Hori ere sexista da. Bestea bezain sutsua da, eta antzezlan honek bi pasioak nola talka egiten duten azaltzen du.

VANDA: Zein arotan bizi zara? Gizonak emakumea arrastatzen du honaino, eta emakumeak amaitzen du maltzurra ematen, bilaua izaten.

TOMAS: Ez dago gaiztorik obran. Jendeak ulertzeko moduko eskaera bat da. Hau erreazio kimiko bat da. Bi pertsonak ezagutu eta su hartzen dute. Ez gara gizoni edo emakumeei buruzko adierazpen orokorraz ari.

VANDA: Sexuaz, klaseaz, generoaz baino, lagun.

TOMAS: Bere baitan zerbait posiblea atzematen duen emakume bati buruzkoa da, eta emakumea ezagutu arte bere benetako nortasuna ezkutatzera behartuta ikusten den gizon bati buruzkoa.

VANDA: Bai. Harroputz ustel hori.

TOMAS: Zergatik mespretxatzen duzu horrela?

VANDA: Vanda noraezean dabilen pertsona inozente eta jatorra da.

TOMAS: Ez duzu ulertzen, txintik ere ez.

VANDA: «Bide okerretik eraman nauzu» dio.

TOMAS: Inozentea da? Edo betidanik izan du menderatze nahi hori? Agian Kushemskik argira ateratzen laguntzen dio.

VANDA: *Ya*, igual emakume bat baino ez da. Hau Das Femaleren kontrako hitzarmen teutoniko viktoriar zahar bat-edo bezalako da. Gizonak emakumea behartzen du boterero bat hartzera eta gero ahuntzak egozten dizkio.

TOMAS: Ez da horrela inola ere, hori ez da antzezlanaren esanahia.

VANDA: Eta antzezlanak ere botatzen dio errua.

TOMAS: Ez du hori egiten.

VANDA: Ez duzu ikusten, ala?

TOMAS: Nola botatzen dio errua?

VANDA: Orrialde guztietan egiten du, lerro guztietan! Zer gertatzen da amaieran? Vandak Kushemski umiliatzen du azken aldiz, kondeari edo tipo horri zapla jotzen uzten dio, Kushemski zakila eskuan geratzen da, eta gainera erru guztia Vandari leporatzea ere...! Hau marka hau! Kushemskik hau guztia inoiz gura izan ez balu bezala! Horren eske ibiliko ez balitz bezala! Nire ustez, Kondeak buztana tentetzen dio Kushemskiri. Nire ustez, e!

TOMAS: Nola izan zaitezke horren ganorabakoa? Benetan ere! Nola izan zaitezke hain ona Vanda antzezten, eta gero hain zakar puta beraz mintzatzean? Eta lan honetako gainerako guztiaz. Inuzente ustela. Emakume inuzente ustela. Bai. Emakume inuzentea. Aktore inuzentea.

[Etena].

VANDA: Uste dut barkamen bat merezi dudala, txapeldun.

TOMAS: Sentitzen dut.

VANDA: Zer, barkatu?

TOMAS: Sentitzen dudala. Burua joan zait.

VANDA: Beno. Berandu da esandakoa zuzentzeko.

[Soinekoa erantzi eta larruzko gona jartzen du, eta bere gauzak batzen ditu alde egiteko, larruzko gona eta bularrekoarekin soinean].

TOMAS: Esan dezakezu antzezlan honek... desiratzen duzunarekin kontuz ibiltzeko duela ondorio.

VANDA: Ate aurrean ager dakizukeelako. Ez zaitez saiatu jainkosa bati ziria sartzen, hori du ondorio.

TOMAS: Hala baderitzozu. Barkatu. Zein da horren gaur egungo baliokidea?

VANDA: «Niri bost».

TOMAS: Niri bost.

VANDA: Eskerrak ez dagoela jainkosa baten parekorik; akabatuta egongo zinateke, bestela.

TOMAS: Ongi da. Ados, arrazoia duzu. Zurekin bat nator esandako guztian. Jarrai dezakegu? Inporta dizu? Vanda?

VANDA/DUNAYEV: *Ez al duzu ulertzen ez zarela inoiz salbu egongo emakume baten eskuetan? Edozein emakumeren eskuetan?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Zu eta biok abenturazaleak gara, Vanda. Espirituko esploratzaileak gara. Giza izaeraren mugak zabaltzen ditugu.*

VANDA/DUNAYEV: *Zure izaera kirastuta dago. Kondesak pozoitu zuen. Efektuak nabaritzen ari zara orain.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Efektuak adoratzen dituzu, nik bezala.*

VANDA/DUNAYEV: *Ez.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Gogoko duzu ni mende edukitzea.*

VANDA/DUNAYEV: *Ez.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Esadazu edozer gauza egiteko, posible den edozer, eta zure nahia beteko dut.*

VANDA/DUNAYEV: *Ameslari deitu nizun, baina ameslari hitza labur geratzen da. Fanatikoa zara zu. Irudikor ero bat. Ahalegin guztiak egingo zenituzke zure ametsak betetzeko.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Zu zara nire ametsa.*

VANDA/DUNAYEV: *Utz nazazu, Severin, berandu izan baino lehen.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Maite nauzu?*

VANDA/DUNAYEV: *Ez dakit.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Deskubritu ezazu. Frogatu hala dela.*

VANDA/DUNAYEV: *Nola?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Maitale orok egiten duena eginez. Egidazu min.*

VANDA/DUNAYEV: *Ez. Nardagarria iruditzen zait. Eta gorroto ditut rol-jokoak. Ez naiz zure Kondesa-Izeba. Ni, ni naiz.*

TOMAS: *Errepikatu lerro hori. Egiozu aurre Kushemskiri.*

VANDA: *Ez naiz zure Kondesa-Izeba. Ni, ni naiz.*

TOMAS: *Saiatu berriz. Gogotsu.*

VANDA: **ZER GURA DUZU NIGANDIK? EZ NAIZ ZURE KONDESA-IZEBA. NI, NI NAIZ. ZER GURA DUZU?**

TOMAS: *Ez dakit.*

VANDA: *Ze ez dut uste obra honetaz berbetan segitzen dugunik.*

TOMAS: *Gehiago nahi dut, besterik ez da.*

VANDA: *Beno, ni ez naiz Vanda. Lanpostu bila etorri den patetika burugabe bat baino. Eta ez naiz zure Kondesa. Ni, ni naiz. Zer moduz hori?*

TOMAS: *Ongi. Oso ongi.*

VANDA: *Begira, ez dut uste hau egin dezakedanik. Sentitzen dut. Gehiegi da.*

[Gauzak batzen hasten da alde egiteko].

TOMAS: Gera zaitez, Vanda. Faborez.

[Gelditu egiten da].

VANDA: Esan mesedez.

TOMAS *[Belauniko]*: Mesedez.

VANDA: Gaiztoa zara.

TOMAS/KUSHEMSKI: *Ez al duzu ulertzen? Zure menpe nauzu, erabat.*

VANDA/DUNAYEV: *Gezurri halakoa. Ez zaude nire boterepean, ni zurean baino. Nire esklaboa zarela diozu, baina zu zara menderatu nauena. Inoiz bizi izan den tentatzaile goitarrena baino azpisugeagoa zara. Sorginkeria bat dirudi –Egia da, baietz?*

TOMAS: Zer?

VANDA: Vandak boterepean daukala esaten segitzen du Kushemskik. Baina bera da boterea daukana, ez bestea. Zenbat eta gehiago obeditu, gero eta kontrol handiagoa izango du bestearengan. Bitxia da.

TOMAS: Korapilatsua bakarrik.

VANDA/DUNAYEV: *Hona hemen eztabaidatu genuen kontratua. Sumisioa erakutsiko didazula eta nire agindu guztiak kontraesanik gabe jarraituko dituzula dio. Zure nortasuna bere osotasunean errefusatuko duzula. Nireak izango direla zure arima eta ohorea eta gorputza, zure adimena eta sentimenduak eta espirituak bezainbeste. Laburbilduz, Vanda von Dunayeven jabetzako jopua zarela. Sina ezazu behealdean. Ongi deritzozu?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Uste nuen nire zerbitzua urtebetekoa izango zela.*

VANDA/DUNAYEV: *Nork idatzi ditu baldintzak, zuk ala nik?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Irakur dezaket kontratua?*

VANDA/DUNAYEV: *Zertarako? Ez al zara fidatzen?*

[Tomasek sinatu egiten du].

Ederki. Une honetatik aurrera «Madam» izenaz deituko didazu eta baimena ematen dizudanean bakarrik egingo didazu zuk. Bazkari eta afari guztiak ekarriko dizkidazu eta korridorean geratuko zara nire aginduen zain. Goizetan jantzi eta gauetan erantzi egingo nauzu. Galtzerdiak emango eta oinetakoak jarriko dizkidazu. Eta hemendik aurrera «Tomas» deituko dizut.

TOMAS: Gregor ageri da gidoian....

VANDA: Aldatu berri dut. – *Eta hemendik aurrera «Tomas» deituko dizut. Nire lekaioaren uniformearen nahi zaitut, eta nire armarriarekin bularrean.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Noblea naizen aldetik...*

VANDA/DUNAYEV: *Noblea zaren aldetik zure hitza betetzera derrigortuta zaude. Ez al duzu orain orri bat sinatu nire esklaboa zarela zin egiteko?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Zure esklaboa, ez zure maiordomoa.*

VANDA/DUNAYEV: *Ez dut desberdintasunik ikusten.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Zer da hau, joko bat?*

VANDA/DUNAYEV: *Hau naiz ni. Burugogorra, egoskorra eta gutziatsua naiz, eta zerbait hasten dudanean amaitu egiten dut. Zenbat eta erresistentzia gehiagorekin topo egin, orduan eta kementsuagoa bihurtzen naiz.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Baina zu prestua zara izaeraz...*

VANDA/DUNAYEV: *Zer dakizu zuk nire izaeraz, zuk erabaki duzuna salbu?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Barkaidazu. Mespretxagarria naiz.*

VANDA/DUNAYEV: *Emazkidazu pasaportearen eta dirua. Oraintxe bertan.*

[Tomasek diru-zorroa ematen dio eta Vandak poltsa handira botatzen du].

Florentziara goaz bihar. Lehen klasean bidaiatuko dut, eta zuk hirugarrenean, nire lekaio gisa.

TOMAS/KUSHEMSKI: *Hirugarren klasean...?*

VANDA/DUNAYEV: *Hara iristean zerbitzarien gelan jango eta lo egingo duzu. Ziur nago hau beharko duzula.*

[Zerbitzari-jaka bat atera poltsatik eta Tomasi ematen dio].

Zer, Tomas? Zer gertatzen da?

TOMAS/KUSHEMSKI: *Noiz bukatuko da hau guztia?*

VANDA/DUNAYEV: *Bukatu? Ez da hasi ere egin.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Baina Vanda...*

VANDA/DUNAYEV *[Belarrondoko bat ematearen itxura egiten du]: Belarrondoko bat ematen dio – Nork eman dizu niri horrela deitzeko baimena?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Bai, Madam. Eskerrik asko, Madam.*

VANDA: Musu ematen dio.

[Musua ematearen itxura egiten du, Tomasengana hurbilduz baina ukitu gabe].

Masaila laztantzen dio.

[Masaila laztantzearen itxura egiten du].

Min asko egin al dizu, bihotza?

TOMAS/KUSHEMSKI: *Samur-samur.*

VANDA/DUNAYEV: *Bide batez...Ezer berririk greziar eder horri buruz?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Gizonak Alexis du izena. Atenaseko kondea da.*

VANDA/DUNAYEV: *Galanta da, ezta?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Xarma handikoa.*

VANDA: *Esan nizun Kondeak Kushemskiri tilin-tilin egiten diola. Konde-natuta dago – Eskura ezazu palko bat berarengandik hur gaur gaueko kontzertuan. Alexis kondeak eta biok elkar ezagutu behar dugu. Izan ere, nirekin nahi duena egiten utziko diot. Zer arazo dago? Apetak eman didana egiteko librea naiz, ezta? Esklabo hori?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Sutu egiten nauzu.*

VANDA/DUNAYEV: *Ixo, txakur putza! Ekarridazu urkizko zarta bat.*

TOMAS: *Urkiaren adarra ematen dio eta Vandak kask egiten du airean.*

[Urkizko zarta bat hartzearen eta ematearen plantak egiten ditu. Vandak kask egiten du airean]

VANDA/DUNAYEV: *Entzuten duzu txistu-hots hori? Soinu horrek diapasoien erara dardararazten dizkit nerbioak. Nire barnealdeko denak zartailuaren azpian iraulka nahi zaitu. Erruki eske entzun. Ustezko gizon bat emakume baten malkotan ikusi. Bihotza pilpira bizian dut. Airea gorria da. Zer egin didazu, esklabo hori? E? Zer egin didazu?*

[Kushemski zigortzearen itxura egiten du].

Zer egin duzu? Zer egin duzu? Zer egin duzu?

Zer egin duzu? Bla, bla, bla, bla...

TOMAS: *Zergatik bla, bla, bla?*

VANDA: *Zer, bat-batean Vanda Sorgin Maltzur bihurtzen da? «Nire nerbioak diapasoiak*

bihurtzen dira. Airea gorria da.» Airea morea da, izatekotan. Begira, Tom. Gogoko zaitut. Bene-benetan gogoko. Baina ez dut uste honek funtzionatuko duenik.

TOMAS: Hala egin beharko du. Hau da-eta dagoena. Hau da antzezlan. Nire antzezlan. Oso ona, gainera. Eta inork ez dit kontrakoaz konbentzituko. Ez zara antzezlea eta ez duzu antzezlan hau pikutara bidaliko, bertan zaudela ala ez. Zoaz zu pikutara.

VANDA: Ados. Zure esku dago.

[Tximista eta trumoiaren burrunba]

Labana bat atera eta Tomasi eztarrian jartzen dio.

[Labana bat ateratzen du ustekabearen eta eztarrian jartzen dio].

VANDA/DUNAYEV: *Ene, zenbat gorroto zaitudan!*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Zer da hau, Vanda, zein azpikeriatan diharduzu?*

VANDA/DUNAYEV: *Zure estrategia ulertu ez dudala uste zenuen? Zure joko zikinera erakarri eta erabil nazakezula uste duzu? Azpiratuko nindukezula uste zenuen?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Jainkoari zin egiten diot ez nuela benetan esan, Vanda.*

VANDA/DUNAYEV: *Jakingo bazenu zein gozagarria den hau...! Ez bakarrik ausazko gizagaixo eta tentel bat izatea nire kontrolpean, baizik eta nitaz maiteminduta dagoen gizon bat izatea.*

[Alde batera botatzen du labana].

Ba aktoreen elkarteari berba egin beharko nioke. Ze oraindik ez badakizu niri ematea papera ala ez...

TOMAS: Pila bat gustatuko litzaidake zuri ematea.

VANDA: Hori da orain diozuna. Baina gero, emango didazu? Eta idatziz jarriko duzu?

[Mugikorrek jo].

TOMAS: Barkatu.

[Telefonoan]:

Aupa.

VANDA: Zoaz infernura, Stacy!

TOMAS: *[Stacyk entzun ez dezan urruntzen da].: Aupa. Ez, hemen nago oraindik. Gauza batzuk batzen ari naiz.*

VANDA: Txortan gaude, Stacy! Lurrean nauka eta ipurditik sartu dit zakila!

TOMAS: *[Telefonoan]*: Ez dakit oraindik, lastertxo.

VANDA: Txakurren moduan ari gara txortan!

TOMAS: Hobe afaltzen hasten bazara. Deituko dizut. Ciao.

[Eskegi egiten du].

VANDA: Nola ausartzen naizen, ezta? Edo antzerako zerbait.

TOMAS: «Nola ausartzen zaren» ondo baino hobeto dago. Zer dela eta ikuskizun hori?

VANDA: Barkatu.

[Telefonoari]:

Aupa. *Baip*. Ez dakit oraindik. Esan dizut ez dakidala, ba. Alabatxi, entzuidazu: jan kaka, bai? Neuk nahi dudanean joango naiz etxera. Agur.

[Eskegi egiten du].

Barka.

TOMAS: Ez zegoen inor beste aldean, ezta?

VANDA: Zer?

TOMAS: Plantak egiten zenbiltzan. Ez zeunden inorekin hizketan.

VANDA: Bai, nire bikotekidearekin.

TOMAS: Nor da, ba, mutil hori?

VANDA: Nork esan dizu mutila dela?

TOMAS: Zergatik egin duzu?

VANDA: Zergatik ez?

TOMAS: Suposa dezaket urduri jarri zaituelako ni mugikorrean egon izanak.

VANDA: Emakumearen mendekua-edo. Bazter utzita egonagatik.

TOMAS: Horrelako zerbait.

VANDA: Botaiozu errua emakumeari.

TOMAS: Ez dut hori egin.

VANDA: Badakizu, antzezlari-barra-zuzendari gehienek lau hankatan izango nindukete lurrean dagoeneko.

TOMAS: Esan dezaket, orduan, ez naizela antzezlari-barra-zuzendari gehienak bezalakoa.

VANDA: Kaka zaharra. Ez zenuke nirekin larrua joko lurrean zurearekin irtengo zinatekeela pentsatuko bazenu?

TOMAS: Ez.

VANDA: Eta hori egiteko eskubidea emango banizu?

TOMAS: Nolatan dakizu horrenbeste Stacyz?

VANDA: Gimnasioan ezagutu genuen elkar. Oso-oso jatorra ematen zuen. Eta *guapa* ere bai. Puf. Beno, eta hori, arropa kentzen ari ginela, hizketan hasi ginen –nesken elkarrizketa, dutxan – eta esan zidan *nobio* bat zuela, idazlea, izaeraz nahiko barnerakoia. Nik aktorea izan ohi nintzela kontatu nion, baina orain agente sekretua – edo horren ahaleginetan -, beraz, zertxobait ordaindu zidan hona etortzeko eta zu espiatzeko. Deskubritzeko nolakoa zaren, ikusteko benetan maite duzun bera. Ezkontza aurreko ikerketa-misio baten antzerako zerbait. Gehi kontu korronteak, kreditu-txartelak eta abar. Hotelean geratu naiz berarekin, txosten oso bat egiteko. Gorputz polita duzu, bide batez. Zorionak.

TOMAS: Berebiziko izakia zara.

VANDA: Normalean gizon batek handitasuna indargabetzear dagoen emakume bati esaten dio hori.

TOMAS: *Touché*. Stacy ez da gimnasioan dutxatzen.

VANDA: Ez, ala? Blai eginda zirudien ikusi nuen azken aldian. Beno, goazen amaiera aldera. Lekaioaren uniforme beharko duzu.

[Zerbitzariaren jaka botatzen dio. Tomasek jarri egiten du. Gero]:

Tomas! Itxaroten izan nauzu.

TOMAS/KUSHEMSKI: *Sentitzen dut, Madam. Zilarrari distira ateratzen ari nintzen.*

VANDA/DUNAYEV: *Apainagoa dirudizu lekaio baten jakarekin.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Eskerrik asko, Madam.*

VANDA/DUNAYEV: *Eman buelta. Erakutsidazu.*

[Hala egiten du].

Alajaina! Zu bai xarmanta. Txoratuta izango nindukezu. Lekaio bat baino ez zarela ahaztuko nuke zu horrela ikusita. Baina nire ustez zerbait falta da oraindik.

TOMAS: Non dago hori? Ez da agertzen...

VANDA: Inprobisatzen nago – *Nire ustez zerbait falta da oraindik, Tomas.*

[Txakur lepokoa kendu eta Tomasi ematen dio].

Alajaina! Pièce de résistance-a. Liluragarria. Nola daukazu?

TOMAS/KUSHEMSKI: *Eroso, Madam.*

VANDA/DUNAYEV: *Zurekin maitemintzeko gai izango nintzateke, hori jantziz gero. Zer gertatzen da, zer dela eta begirada hori?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Horrek maite ez nauzula esan nahi du?*

VANDA/DUNAYEV: *Ai, aspertu egiten nauzu. Aldiro negar-zotinka. Gogaikarria zara.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Kondeagatik da? Harekin zaude maiteminduta?*

VANDA/DUNAYEV *[salto batez etzaten da dibanean]: Eta nola ez nintzateke maiteminduko ? Florentziaraino jarraitu dit!*

TOMAS/KUSHEMSKI: *[Vandaren aurrean makurtzen da]: Gizon horrek ez zaitu maite. Beste milaka emakume nahi izan dituen moduan nahi zaitu zu.*

VANDA/DUNAYEV: *Eta zer maite ez banau? Horrekin kontsola zaitetzke ohera eramango dudanean.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Zure bihotza harrizko basamortu erraldoi bat da.*

VANDA/DUNAYEV *[ostiko bat emanez]: Txerrikume lotsagabea! Nola ausartzen zara tonu horretan hitz egiten? Ekarrizkidazu beste oinetakoak!*

TOMAS/KUSHEMSKI *[zutitu eta mahairantz doa]: Bai, Madam.*

VANDA/DUNAYEV: *Handik ez. Poltsatik, baldar halakoa.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Bai, Madam.*

[Izter altuko bota pare bat, dominatrix estilokoak, takoi altudunak eta txarolezkoak hartzen ditu Vandaren poltsatik].

VANDA/DUNAYEV: *Aurrerantzean, Tomas, «Nagusi» deituko didazu. Umiliagarriagoa da.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Bai, Nagusi.*

VANDA/DUNAYEV: *Gustatuko litzaizuke nire oinetakoak jartzea?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Bai, Nagusi.*

VANDA/DUNAYEV: *Niri jartzea esan nahi dut.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Bai, Nagusi.*

VANDA/DUNAYEV: *Egizu, ba.*

[Hala egiten du. Vandak soinean dituenen botak]:

Agian lorategiko zutoin hartara lotuko zaitut bihar, eta urrezko ile-urkinekin ziztatuko. Edo goldera lotu eta zartadaka gidatu. Gustatuko litzaizuke?

TOMAS/KUSHEMSKI: *Bai, Nagusi.*

VANDA/DUNAYEV: *Oso, oso ondo ari zara, Tomas. Behin betiko hartu beharko zaitut zerbitzari.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Beste ezer egongo al da, Nagusi?*

VANDA/DUNAYEV: *Bai, gauza bat gehiago – Deitu Stacyri eta esaiozu ez zarela etxera joango gaur gauean.*

TOMAS: *Ezin dut hori egin.*

VANDA: *A, ez?*

[Txakur lepokoa estutzen dio].

Ezin duzu?

[Mugikorra atera eta markatzen hasten da].

Eta ezin diozu zergatia esan. Aitzakiak fuera, ez hankamotzik ez bestelakorik.

TOMAS *[Telefonoan]*: *Stacy, ni naiz.*

VANDA: *«Ez naiz etxera joango gaur gauean.»*

TOMAS *[Telefonoan]*: *Ez naiz etxera joango gaur gauean.*

VANDA: *Aitzakiak fuera.*

TOMAS *[Telefonoan]* : *Ezin dizut zergatia esan.*

VANDA: *Esaiozu agur.*

TOMAS *[Telefonoan]*: *Agur.*

VANDA: Orain eskegi eta itzali mugikorra.

[Hala egiten du. Vandak gelako beste puntara botatzen du telefonoa].

Ez al da zoragarria?

TOMAS: Barkatu...?

VANDA/DUNAYEV: *Ez al da zoragarria? Hemen egotea, esan nahi dut. Hotel bat baino askoz erosoagoa da. Toki hau guretzat bakarrik da. Oso atsegina eta isolatua.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Nekez dakit non nagoen, egia esan.*

VANDA/DUNAYEV: *Zergatik? Bizitza berri bat duzu orain zure aurrean. Biok dugu. Pertsona horiek guztiak ez, ordea. Kaos hori guztia. Hemen bakar-bakarrik gaude, eta zurekin nahi dudana egin dezaket, eragozpenik gabe. Gu biok baino ez.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Gu biok eta zure lagun kondea.*

VANDA/DUNAYEV: *Benetan nahiko nuke greziarraz hitz egiteari uztea. Atseginegia izan naiz zurekin, Tomas. Hor dago arazoa. Ez zaitut behar bezala diziplinatu. Eta orain begira zer esan duzun, begira zer egin duzun nire ohera eramatear nengoenean.*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Nitaz jabetuko zinatekeela esan nahi duzu?*

VANDA/DUNAYEV: *Bai, hala da.*

[Dibanean etzaten da].

Etorri. Etorri hona. Ingura nazazu besoekin.

[Hala egiten du, Vandaren besoetan etzanez].

Ikusten? Ordubetez imajinatzen utz diezazuket gizon librea zarela berriz. Nire maitea zarela, asto kokoloa! Noizbait, haatik, ezertxo ere ez zarela konturatuko zara. Nik nahi dudana edozer zarela egiatan. Pertsona bat. Animalia bat. Objektu bat. Pistola huts bat. Bete beharreko zuriune bat. Hutsunea.

TOMAS/KUSHEMSKI: *[aldendu egiten da]: Ez, ez dut hori egingo. Ez dut hori gertatzen baimenduko.*

VANDA/DUNAYEV: *Barkatu?*

TOMAS/KUSHEMSKI: *Gutun bat idatzi dizut.*

VANDA/DUNAYEV: *Gutun bat? O, ongi da, nirekin hausten zaude, dudarik gabe. Zeren bat-batean ohartzen baitzara zuk zeuk eskatutako umiliazioa jasanezinegia dela. – Ez zait zati hau ateratzen, ez diot eszenari neurria hartzen.*

TOMAS: Nahiko erraza iruditzen zait niri.

VANDA: Nola izan beharko luke? Ez, benetan, zure buruan, nola funtzionatzen du?

TOMAS: Zein da esaldia? Zer dio Kushemskik?

VANDA: «Gutun bat idatzi dizut.»

TOMAS/DUNAYEV: *Gutun bat? O, ongi da, nirekin hausten zaude, dudarik gabe. Zeren bat-batean ohartzen baitzara zuk zeuk eskatutako umiliazioa jasanezinegia dela. Beno, Tomas, kontratu bat dugu. Seguraski egunak eman dituzu gutun hori aldean duzula, niri erakusteko beldurrez. Beraz? Non dago? Erakutsidazu maisulan hori. Denborapasa gisa erabil dezaket.*

VANDA: Ona izan da, Tom. Itzela. Entzun. Vanda antzeztu behar duzu.

TOMAS: Ez.

VANDA: Bai. Izan zaitetz bera. Nik baino hobeto kontrolatzen duzu. Zuk sortu duzu Vanda. Barren-barrenetik ezagutzen duzu.

TOMAS: Ez dakit pertsonaia antzezten...

VANDA: Noski badakizula.

[Tximista eta trumoiien burrunba].

TOMAS/DUNAYEV: *Kenduidazu hau eta ekarridazu larrua.*

[Vandak jaka kentzen dio].

Kontu handiz, Tomas.

VANDA/KUSHEMSKI: *Ahalik eta ondoen egiten ari naiz, Nagusi.*

TOMAS/DUNAYEV: *Bada, beti bezala, zure «onena» ez da nahikoa.*

[Vandak lekaioaren jaka janzten du].

VANDA/KUSHEMSKI: *[zeremoniatsu inguratzen dio xala Tomasi]: Zure larrua, Nagusi.*

TOMAS/DUNAYEV: *Prestazazu xanpain-botila bat eta bi kopa. Kondea edozein momentutan agertuko da.*

VANDA/KUSHEMSKI: *Baina, Nagusi...*

TOMAS/DUNAYEV: *Ez baduzu nire zerbitzua gogoko, joan zaitetz hemendik. Utikan nire bistatik! Aspertu egiten nauzu, ulertzen?*

VANDA/KUSHEMSKI: *Senar hartuko duzu kondea?*

TOMAS/DUNAYEV: *Ez dizut gezurrik esango, Tomas. Gizon horrek dardaraka uzten nau.*

VANDA: *Ederra. Hurbildu publikoarengana.*

TOMAS/DUNAYEV: *Nire pentsamenduetan agertzen da, eta ezin dut bertatik kanporatu. Sufriarazi egiten nau baina maite dut sufrimendua.*

VANDA: *Geldi zaitetz hor eta emazu buelta.*

TOMAS/DUNAYEV: *Bere emazte izateko eskatzen badit, baietz esango diot.*

VANDA: *Fenomenoa zara.*

TOMAS/DUNAYEV: *Ba al dakizu jeloskor dagoela zurekin? Gure harremanari buruz hitz egin diot.*

VANDA/KUSHEMSKI: *Ziurrenik herio-mehatxua egin dizu.*

TOMAS/DUNAYEV: *Bere sentimenduak argi eta garbi utzi ditu.*

VANDA/KUSHEMSKI: *Jipoitu egin zaitu, Vanda? Jipoitzen utzi diozu?*

TOMAS/DUNAYEV: *Bai, eta gozatu egin dut.*

VANDA: *Gehiago.*

TOMAS/DUNAYEV: *Bai, eta gozatu egin dut.*

VANDA: *Gehiago. Su eta gar!*

TOMAS/DUNAYEV: *Bai! Eta gozatu egin dut!*

VANDA/KUSHEMSKI: *Behin jainkosa bat izan zinen. Orain maniki horrekin konformatuko zara? Imitaziozko gizon horrekin?*

TOMAS/DUNAYEV: *Ez duzu niri ezer leporatzeko eskubiderik. Krudelkeria nahi zenuen eta hori bera eman dizut. Eta ez al nizun behin eta berriz ohartarazi? Isilean gorde al dut noizbait zeinen arriskutsua naizen, zeinen galbidetsua den nire aurrean amore ematea? Zu torturatzen gozatzen badut, hori zure kontua da. Ez nirea. Hau ez naiz ni. Zuk eragin duzu. Eta orain niri bota errua?*

VANDA/KUSHEMSKI: *Ezin bazaitut hartu, ez zaitu beste gizonik hartuko.*

TOMAS/DUNAYEV: *Zein melodrama ari zara aipatzen?*

VANDA/KUSHEMSKI: *Harekin ezkontzen bazara, hil egingo zaitut. Biok hilko zaituztet. Bihotzak bioi ebaki eta txakurrei botako dizkiet.*

[Ustekabean, pistola bat erakutsi eta bere bihotzera destatzen du. Tximista eta trumoia].

Madarikatua zu! Madarikatua zu!

TOMAS/DUNAYEV: Hil nazazu, Tomas. Hil nazazu. Zure begietako su hori gustuko dut. Betidanik jakin izan dut zugar zenuela. Betidanik jakin izan dut gizon bat zinela. Ene maitea, adoratzeko zaitut. Nahikoa izan duzu dagoeneko zure ereduarekin? Barkatu al duzu jainkosa hau? Zure emazte egingo al duzu? Zure emazte zintzoa, fidela eta esanekoa?

VANDA/KUSHEMSKI [Pistola alde batera botatzen du]: Nire emaztea ? Hau da... ?

TOMAS/DUNAYEV: Hartuko nindukezu oraindik ? Ez dakit nola maitea nazakezun, bihozgabea izan naiz-eta zurekin.

VANDA/KUSHEMSKI: Vanda, zertaz ari zara, ez duzu inoiz serio esan? Den-dena izan da antzezpena?

TOMAS/DUNAYEV: Nire txotxolo maitea, ez al zara konturatu?

VANDA: Belauniko.

TOMAS/DUNAYEV [belauniko]: Ez al duzu ikusi zeinen gogorra egin zaidan zuri min egitea? Zuk espero zenuena baino hobeto jokatu dut rola, ez al da horrela? Zu salbatzeko egin dut hau guztia. Zenbat maite zaitudan erakusteko. Zu sendatzeko. Menperatua izan beharko lukeena ni naiz. Lotuta eta zartadez jipoitua izan beharko lukeena.

VANDA: Ondo.

TOMAS/DUNAYEV: Ai, Tomas, Tomas, zenbat maite zaitudan. Ikusi zintudan lehen unetik maite izan zaitut. Ezin izan nizun kontatu ez naizelako ematen dudana. Ahula naiz. Galduta nago, ikusten duzun bezala.

VANDA/KUSHEMSKI: Aurrerantzean «Jauna» deituko didazu.

TOMAS/DUNAYEV: Bai, Jauna.

VANDA/KUSHEMSKI: Uste dut galtzerdi pare batekin lotuko zaitudala. Hori nahi duzu?

TOMAS/DUNAYEV: Bai, Jauna, arren.

VANDA/KUSHEMSKI: Joan zaitez bila.

[Tximista eta trumoia. Vanda poltsaren bila doa eta galtzerdi beltz pare bat ateratzen du].

TOMAS/DUNAYEV: Orain egizu nirekin nahi duzuna. Zin egidazu, baina, ez nauzula sekula utziko.

VANDA: Jar zaitez han.

[Tomas hodiaren kontra jartzen da. Vandak lepokoan lotzen dizkio galtzerdiak eta hodiaren inguruan jartzen. Tomas hodiaren kontra geratzen da itsatsirik].

TOMAS/DUNAYEV: Zin egidazu ez nauzula sekula utziko.

VANDA/KUSHEMSKI: Ez zaitut sekula utziko. Zin dagizut.

TOMAS/DUNAYEV: Makurtzera behartuko nindukeen norbait nahi nuela esan nizun. Horixe bera aurkitu dut orain. Zugan.

VANDA: Ondo. Gehiago.

TOMAS/DUNAYEV: Ikusi zintudan lehen unetik nahi nuen hau. Umilia nazazu. Makurraraz nazazu.

VANDA: Bai, oso-oso-oso ondo. Ole zu. Primeran. Baina badakizu honen arazoa, Tommy? Edozein modutan azalduta eta antzeztuta ere, umiliagarria da emakumeentzat. Iraingarria. Pornografia da.

TOMAS: Zertaz ari zara...?

VANDA: Begira zeure buruari. Damatxoa arriskuan. Gelatina femenino eta dardarti mordo bat. Emagaldu babesgabe eta obediente hori gizon bati eskaintzen bere burua. Jo nazazu, min egidazu, emakume bat baino ez naiz.

TOMAS: Baina Vanda...

[Zaplaztekoa ematen dio Tomasi].

VANDA: Eman eskerrak horregatik. Eskerrik asko.

TOMAS: Eskerrik asko.

VANDA *[beste zaplazteko bat]*: Eskerrik asko zer?

TOMAS: Eskerrik asko, Nagusi.

VANDA *[belaunikatzera behartzen du]*: Nola ausartzen zara. Nola DEMONTRE! Posible ikusi zenuen aktore gaixo, adeitsu eta tuntun bati iruzur egitea zure joera morbosoak asetzeko, ezta? Zeure emakumezko Frankenstein munstrotxo bat sortzea. Ni iraintzeko erabil nintzakezula uste zenuen?

[Tximista eta trumoia, ozenago].

TOMAS: Ez, Vanda, benetan....

VANDA: Jainkoen omenez dantzatzen dugu!

Dionisoren omenez!
Agur, Bakanteak!
Agur, Bakanteak!
Agur, Tebaseko emakume ausart horiek!

[Tximista eta trumoia, ozenago. Atera joan eta giltzaz ixten du, gero argiak jaisten ditu fusible-kaxatik].

TOMAS: Mila deabru!

VANDA *[idazmahaiko lanpararen argia jartzen dio aurpegian]*: Nola geratu da zure mundua orain? Ez oso txiki-txiki eginda, ezta?

TOMAS: Kaka. KAKA!

VANDA: Emozio indartsuak. Ondo. Oso hunkigarriak.

TOMAS: Zergatik etorri zara hona?

VANDA: Egon al naiz noizbait hemen?

[Benetako larruzko estola bat hartzen du poltsa handitik eta soinean jartzen du].

TOMAS: Nor zara?

VANDA: Ondo baino hobeto dakizu nor. Orain esazu. Esazu.

TOMAS: Agur, Afrodita.

VANDA: Ozenago, arren.

TOMAS: Agur, Afrodita!

[Tximista eta trumoia. Ozenago. Garaile-jarrera hartu eta, gizonari begira, hankak zabaltzen ditu, eskuak gerrian dituela].

VANDA: «Emakume baten eskuz jo eta hil du Jaunak».

TOMAS: AGUR, AFRODITA!

VANDA: Ondo.

[Tximista, eta trumoi baten kraska gorgarri bat. Itzalaldia].